

hh
hik hasi

Antzuolako Herri Eskola
Cuatro Cantos
Kalaka komunikazio parekidea
Hegoalde ikastola
Dokumentazioa
Inguru Abentura
Xabier Euzkitze

1012



“ Belaunaldi berriek euskal hiztun bilakatzeko dituzten beharrak asetzen asmatu behar dugu ”


PAULA KASARES

NOR
GARA?




MAITASUNAK BADITU MILAKA AURPEGI


UXUE ALBERDI + JULEN TOKERO




Pupu eta Lore jeloskor daude.
Maitatu al daiteke jelosiarik gabe?



Marimototsek bakarrik bizitza erabaki du.
Bere beldurrez eta ametsez hitz egingo digu.



Pirritx maiteminduta dago, hezurretaraino,
zeharo. Aitortzeak lotsa ematen dio,
baina ezin du gehiago.



Porrotx lagunartean bizi da alai,
baina ez da bakarrik egoteko gai.



elkar | Kitziporota

AURKIBIDEA

GAIA / 10

ANTZUOLAKO HERRI ESKOLA: AUTOELIKATZEN DEN EREDU BIZIA

30 urte baino gehiagoko ibilbidea egin du Antzuolako Herri Eskolak askorentzat erreferentzia izanaz. Esperientzia hori deskribatzeaz gain, haren inguruko marko teorikoa jaso du Xabier Arregi MUÑOZ HUHEZI fakultateko maisuak doktorego-tesi argitaratu berrian.

ELKARRIZKETA / 16

PAULA KASARES

Euskararen belaunaldiz belaunaldiko jarraipena izan du hizpide nagusi Paula Kasaresek, NUPeko irakasleak eta hizkuntzariak. Hain zuzen ere, euskaraz eroso aritzeko baliabideak eman behar zaizkie belaunaldi berriei, bere ustez, eta gurasoek ere, euskaldunak izan ala ez, egiteko garrantzitsua dute: motibazio lana.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXI-KIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA.
Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus;
Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus;
Lege Gordailua: SS-1001/95.
ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran,

Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: Grafik. Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtza S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2015-09-15).

Kopurua: 5.000 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Zergatik egiten dugu egiten duguna?

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Antzuolako Herri Eskola

16 ELKARRIZKETA

PAULA KASARES

“Eroso komunikatzeko haurrak euskaraz aritzeko aukerak behar ditu”

26 ESPERIENTZIAK

Cuatro Cantons

30 EKARPENAK 1

Kalaka komunikazioa parekidea

32 EKARPENAK 2

Hegoalde ikastola

36 GALDEIDAZU

ALFREDO HOYUELOS

Dokumentazioaren garrantzia

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Inguru Abentura

42 ATZEKO ATETIK

Xabier Euzkitze

ORAIN

Kontzentrazioa lantzeko erlaxazio ariketak

MARINA PINTOS



Marina Pintos piano eta yoga irakaslea da disko honen egilea. Esperientzia zabala du ikasleei zein irakasleei kontzentrazio-erlaxazio ikastaroak ematen, eta bi hamarkada hauetan hutsune nabarmen bat sentitu du: euskarazko ariketa grabatuen falta, hezitzaileek ikastaro horiei jarraipena eman ahal izateko. Marinak berak sortu ditu disko honetako kontzentrazio-erlaxazio ariketak, eta musika zein ahotsa ere bereak dira.

ORAIN, Hik Hasik argitaratu duen CDa. Informazioa eta eskaerak

www.hikhasi.eus helbidean

Zergatik egiten dugu egiten duguna?

editoriala

EZ AL DUGU GEHIEGITXOTAN FUNTZIONATZEN INERTZIAZ? ETA GURE EGUNEROKO JARDUNEAN, IKASLEEKIN ARI GARENEAN, HAUSNARTZEN OTE DUGU EGITEN DUGUN HORREN ZERGATIAZ?



Soineko berria jantzita eman diogu ongi-etorria ikasturteari. Itxura aldatu dugu, baina edukiak bertsua izaten jarraitzen du. Beste era bateko azalarekin gatoz, baina muinean sorrerako asmo eta ideia antzekoak ditugu. Euskal irakaskuntzaren partaide garen guztion informazio, eztabaida eta elkargunerako bitarteko izaten jarraitu nahi dugu, bertako zein kanpoko esperientzia erdugarrien berri ematen, pedagogiaren inguruko hausnarketak ezagutarazten, eta hezkuntza-bizipenak elkarrekin partekatzen.

Xede horri heldu diogu ikasturte berriko lehen zenbakitik. “Zergatik egiten dut egiten dudan hau?” Aldizkari honetako gaian jaso bezala, galdera horri erantzuten saiatzen dira Antzuolako Herri Ekolako irakasleak. Baina, oro har, zenbat aldiz galdetzen diogu geure buruari zergatik egiten dugun egiten duguna? Ez al ditugu eguneko ekintzarik gehienak errutinaz egiten? Ez al dugu gehiegitxotan funtzionatzen inertziaz? Eta gure eguneroko jardunean, ikasleekin ari garenean, hausnartzen ote dugu egiten dugun horren zergatiaz? Edota urtez urte horrela egin dugulako, norbaitek agindu digulako, testuliburuek hala diotelako edota fitxetan emana datorrelako egiten dugu egiten dugun hori egiten dugun bezala?

Urte luzez izan da erreferente Antzuolako eskola, baina hango ereduak orain dela 30 urte

eta orain ez dauka zerikusirik. Asko aldatu da, hain juxtu ikerketak egiten joan direlako, euren artean eztabaidatu eta hausnartu dutelako, egindakoa erakutsi eta publikatu dutelako eta maila teorikoan ateratako ondorioak pixkanaka euren esperientzian txertatu dituztelako. “Garaiak aldatzen dira eta eskolak ere aldatu behar du”. Hala aldarrikatzen du Xabier Arregi Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko maisuak *Antzuolako Herri Eskolaren eredu pedagogikoa* izeneko doktorego tesia amaitu berrian.

Asko dira azken aldian ildo berean mintzo diren ahotsak: aldaketa behar dela hezkuntzan. Horren adibide da aldizkari honetako esperientzien atalean landutako Cuatro Cantons ikastetxea. Bigarren Hezkuntzan ere irakasle bakarrak ematen ditu eskolak, uste baitute gertuago dagoela ikasten ari denaren logikatik: “Pertsonok ez dugu ikasten unibertsitatean egindako jakintzen sailkapen baten arabera; errealitatetik ikasten dugu, eta, errealitatean, arloak nahasi egiten dira; errealitatea transdiziplinarioa da”.

Aldaketak egitea, ordea, ez da samurra, ez eskolan, ez bizitzan. Baina noizbehinka errutinak hautsi ditzakegu, ohiturak zalantzan jarri, inertziak apurtu, emana datorkiguna albo batera utzi, eta geure buruari galdetu: “Zergatik egiten dut egiten dudan hau?”.

“Euskaraz alfabetatutako zenbat jende dago prentsa euskaraz irakurtzea ‘kosta’ egiten zaiona? Erraztasuna ohiturak ematen du”

Iñaki Eizmendi



HEZKUNTZA LEGEA PRESTATZEKO BILERAK HASI DITU EUSKO JAURLARITZAK

Ikasturte hasieran Donostiako Amara Berri ikastetxean egindako ekitaldian, Cristina Uriartek, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailburuak, Heziberri planari loturiko iragarpen bat egin zuen: irailean bertan hasiko zituztela Hezkuntza Legea egiteko lehen bilerak. Hezkuntzako eragileekin, sindikatuekin eta alderdi politikoekin bilduko da Hezkuntza Saila. Uriartek iragarri zuenez, ez dute bileretara dokumenturik eramango, "entzutera" joatea baita beraien asmoa. Horren ondoren osatuko dute dokumentu bat, proposamen gisa. Prozesua luzea izango dela iragarri du Uriartek.

HIRU IKASTOLA BERRI IREKI DITU SEASKAK IKASTURTE HONETARAKO

Hiru ikastola berriekin ekin dio 2015-16 ikasturteari Seaskak. Lapurdin ireki ditu horietako bi: Basusarrin eta Biriartun, hain zuzen. Hirugarrena, berriz, Behe Nafarroako Azkaraten zabaldu dute. Horretaz gain, Ziburuko (Lapurdi) Kaskarotenea ikastolan eraikin berrian hasi dute ikasturtea. Iaz, herriko etxeak Marinelako eskolatik kanporatu zuen ikastola, eta eraikin propioa izango dute aurrerantzean.



IRAKASLE GEHIAGO ESKATU DUTE IPAR EUSKAL HERRIKO HEZKUNTZA ERAGILEEK

Seaska Ipar Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak eta Snuipp-FSU sindikatuko ordezkariak kezka agertu zuten, ikasturte berriaren atarian, gelak osatzerakoan eta irakasleak izendatzerakoan Paueko Akademiako ikuskariak hartuko duen jarreraren inguruan. Izan ere, ikasturte hasieran eskola eta gela bakoitzeko ikasle kopurua zenbatu, eta zein egokitzapen egin erabaki beharko du ikuskariak: irakasle gehiago izendatu, soberan daudenak kendu... Ipar Euskal Herriko hezkuntza-eragileek salatzen dutenez, azken ikasturteetan ikasleak geleten pilatu egin behar izan dituzte, Paueko Akademiak "ezinbertzekoa zen lekuetan baino ez baititu ezarri irakasle gehiago, gela berriak ireki ahal izateko: 30 ikasletik gorako ikasgelak zituzten lekuetan egin dute bereziki".

Gainera, eragileek salatu duenez, 5,5 irakasle-lanpostu ezabatu dituzte ikasturte hasieran. Horiei gehitu behar zaizkie udaberrian ezabaturiko beste 14,5 lanpostu.

Seaskak ere, bere aldetik, irakasleen izendapenarekin izan ditu arazoak. Izan ere, Frantziako Hezkuntza Ministerioarekin duten hitzarmenaren arabera, honen ordaintzen ditu irakasleen soldatak. Ikasturte berrirako 6 irakasle gehiago izendatu dizkio Ministerioak Seaskari, baina gehiago behar dituzte. Horrenbestez, "11 irakasle lanpostu ordaindu beharko ditugu gure sakeletik", Seaskako lehendakari Paxkal Indok salatu duenez.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

INGELES IKASTEKO PAI PROGRAMAK EBALUATUKO DITU NAFARROAKO GOBERNUAK, "DEFIZITAK" ZUZENTZEKO

Ikasturte berriaren atarian, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilariak, Jose Luis Mendozak, PAI Ingelesa Ikasteko Programak ebaluatzeko asmoa agertu zuen. Lan horri datozen hilabeteetan helduko diotela iragarri du. Izan ere, Mendozaren irudiko, "gabezia nabarmenak" ditu programak, eta horiek zuzentzeko beharra aipatu du.

Oraingoz, ordea, ingelesa ikasteko programa ez da desagertuko, ikasturte osoa dagoeneko planifikatuta baitago. "Ikasturte honi begira jada ezin da ezer egin", adierazi du. Hala ere, gutxieneko lanak egingo ditzuzte: "Programaren jarraipena eta azterketa egitera mugatuko gara, beharrezkoak diren zuzenketak datozen ikasturteetan aplikatzen hasteko".

Mendozaren esanetan, PAI programak indarrean jarri zituen UPN alderdiaren gobernuan ez zuen hura ezarri irizpide pedagogikoen arabera, helburu politiko jakin batekin baizik: "Yolanda Barcinak berak aitortu zuen euskara zokoratzeko ezarri zutela PAI, trukean zenbait ikastetxeri ingelesa eskainiz". Gainera, "ez du oinarri teorikorik, ezta hezkuntza printzipiorik ere", eta, ondorioz, ikastetxe bakoitzak "ahal izan duen moduan" garatu izan du orain arte PAI eredu, Mendozaren irudiko.

LOMCEren itzalpean hasi da ikasturtea



Espainiako Gobernuako Hezkuntza ministroa aldatu egin da: Juan Ignacio Wert-en ordez Iñigo Mendez de Vigok izango du ardura aurrerantzean. Baina, aldaketak aldaketa, LOMCEren itzala bere horretan mantenduko da ikasturte berrian ere, are handiagoa ez bada izango. Izan ere, EAEn Eusko Jaurlaritzak 2014-15 ikasturtean hainbat ikastetxetan Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleei ebaluazio-azterketa egin bazien proba moduan, 2015-16 ikasturtean ebaluazio-eremua handiagoa izango da: 3. mailako ikasleez gain, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek ere ebaluazio-probak izango dituzte. Aurreko ikasturtean, hainbat ikastetxetan plantoa egin zioten ebaluazio-azterketari.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren eta Batxilergoaren amaierarako iragarritako ebaluazioei dagokienez, oraingoz Espainiako Gobernuak ez du onartu horiek arautuko lituzkeen dekretua, eta, beraz, ikasturte honetan ez dira egingo.

Hezkuntza-eragileak eta sindikatuak, oro har kezkatuta agertu dira LOMCEk ikasturte berrian ere izango duen eraginaren inguruan. Sortzen-eko kide Bego Bitorikak, esaterako, ikasturtea "arazo zaharrekin" hasi dela salatu du. Antzeko ildotik mintzatu da EHIGeko Lurdes Imaz; bere esanetan, "ziurgabetasunez hasi da ikasturtea".



HH ETA LH-KO IRAKASLEENTZAT GITARRA IKASTAROA ANTOLATU DU XIRULA MIRULAK ZAZPIGARREN URTEZ JARRAIAN

Ezertxo ere ez dakiten irakasleentzat gitarra ikastaroa antolatu du Xirula Mirulak, beste urte batez ere. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan aritzen diren irakasleei dago zuzendua. Helburua da ikastaro amaieran eskola-giroko kantuak eta zenbait abesti herrikoi gitarraz laguntzeko gai izatea. Horrexegatik, praktika izango du oinarri ikastaroak.

Urriaren 23an hasita, eskolak ostiraletan izango dira 18:00etatik 19:30era, eta ikastaroa maiatzeko azken ostiraletan amaituko da. Donostiako Amara auzoan (Catalina Erauso, 12) izango dira saioak.

Xedea da talde txikia osatzea, zortzi lagun ingurukoa. Beraz, gitarra jotzen ikasteko interesa eta gogoia duenak lehenbailehen eman behar du izena. Ikastaro osoa —materiala barne— 240 euro kostako da. Matrikula epea zabalik dago jada. Izena emateko 943 463555 zenbakira deitu (17:00 eta 19:00 bitartean) edo xirula@euskalnet.net helbidera idatzi behar da.



PEDAGOGIA SISTEMIKOAREN INGURUKO IKASKETAK LEHEN ALDIZ EUSKARAZ ESKAINIKO DIRA IKASTURTE HONETAN

Hezkuntzaren munduko profesionalei, gurasoei, psikologoei nahiz ikuspegi sistemikoan interesa duen edonori zuzenduta, bi urteko formazioa eskainiko du Euskal Herriko Eskola Sistemikoak Donostian. Lehen aldiz euskaraz egin ahalko dira ikasketok. Xedea da hezkuntza sistema osatzen duten pertsona guztien alderdi emozional eta motibaziozkoa lantzea. Informazio gehiago info@escuelasistemica.com helbidera idatzita lor daiteke.

AZAROAREN 6, 7 ETA 8AN PSIKOMOTRIZITATE GAIEI BURUZKO JARDUNALDIAK EGINGO DIRA

Egungo haurrak eta psikomotrizitate praktikaren eboluzioa izenburupean, azaroaren 6, 7 eta 8an egingo dira Luzarok urtero antolatzen dituen psikomotrizitate praktikari buruzko jardunaldiak Gasteizko Europa Biltzar eta Erakusketa jauregian.

Hizlarien artean, besteak beste, Felix Lopez Sanchez, Katty Homar Homar, Iolanda Vives Peñalver, Alvaro Beñaran Aranzabal eta Luispe Gutierrez ariko dira.

Dagoeneko irekita dago izena emateko epea. 150 eurokoa da matrikula eta urriaren 29a baino lehen egin behar da.

Informazio gehiago behar izanez gero, <http://www.uned.es//ca-bergara/> webgunean eskura daiteke; baita 943 769033 telefono zenbakira deituta edo info@bergara.uned.es posta elektronikora idatzita ere.



HIZPIDE IZANGO DA

BARTZELONAKO EL MARTINET ESKOLAKO ESPERIENTZIA EZAGUTZERA EMATEKO LAN-SAIOA EGINGO DA AZAROAN



Lan egiteko moduagatik nahiz hezkuntzaren gainean duten ikuspegiagatik berritzaile eta eredugarri izan daitezkeen hainbat ikastetxeren esperientzia ezagutarazteko hiru jardunaldi antolatuko ditu Hik Hasi-k 2015-2016 ikasturtean, bereziki Lehen Hezkuntzan lanean diharduten profesionaleri zuzenduta.

Esperientzia horien artean lehena Ripolleteko El Martinet ikastetxearena izango da. Joan den apirilean *Herri hezitzailea, eskola herritarra* izenburupean eginiko jardunaldietan parte hartu bazuten ere, irakasle asko gehiagoren egarriz geratu zen, eta beraz, hango esperientzia berriz ekartzea erabaki du Hik Hasi-k. El Martinet modu sakonagoan eta gertuagotik ezagutu ahal izateko jardunaldia egingo da azaroaren 20an eta 21ean Donostiako Irakasle Eskolan.

Ostiralez, eskolaren hezkuntza proiektuaren aurkezpen orokorra egingo dute El Martineteko kideek. Larunbatean, berriz, zikloka banatuta (3, 4 eta 5 urte; 6, 7 eta 8 urte; eta 9, 10 eta 11 urte) lan saio espezifikoak egingo dira.

Plazak mugatuak izango dira. Informazio gehiagorako edo izena emateko www.hikhasi.eus webgunera jo daiteke, edota 943 371408 telefono zenbakira deitu.

'ORAIN' CD-A ARGITARATU DU HIK HASI-K, KONTZENTRAZIOA LANTZEKO ERLAXAZIO ARIKETEKIN

Marina Pintos piano eta yoga irakaslea da diskoaren egilea. Kontzentrazioa eta erlaxazioa lantzeko euskarazko ariketa grabatuen falta sumatuta ekin dio lanari. Berak sortu ditu diskoan jasotako kontzentrazio eta erlaxazio ariketak, eta musika zein ahotsa ere bereak dira. Pianoari dagunduta, berriz, Luis Puentek moldatu eta jo ditu sintetizadore zatia.

CD-an bildutako ariketak eskolan zein etxean landu daitezke, eta haurrentzat zein helduentzat proposak dira. Diskoa www.hikhasi.eus webgunean edota Elkar saltokietan eskura daiteke 15 euroren truke (10 € harpidedunentzat).

HAURRAREN AUTONOMIA HIZPIDE HIK HASI-REN JARDUNALDIETAN

Urriaren 16an Bilbon eta 17an Donostian egingo dira Hik Hasik udazkeneko Haur Hezkuntzako profesionaleri zuzenduta antolatzen dituen jardunaldi pedagogikoak. Aurtengoan haurraren autonomia izango da gai nagusia eta hizlari lanetan Myrtha Chocler, Xabier Tapia, Teresa Godal eta Alfredo Hoyuelos ariko dira.



30 urte baino gehiagoko ibilbidea du Antzuolako Herri Eskolak. Konstruktibismoaren teoriarekin harremanetan jarri ziren hasiera hartan, eta orduz geroztik garaian garaiko pedagogietatik edanaz joan dira. Baina, batez ere, euren eguneroko praktikaren gainean hausnartuz eta teorizatuz etengabe hobekuntzak txertatu dituzte. Esperientzia hori deskribatzeaz gain, haren inguruko marko teorikoa jaso du Xabier Arregi MUko HUHEZI fakultateko maisuak “Antzuolako Herri Eskolaren eredu pedagogikoa” izeneko doktorego-tesian.

GAIA:

ANTZUOLAKO

HERRI ESKOLA

Autoelikatzen den eredu bizi bat

Kultura, auzolana, esperientzia, praktika pedagogikoa, bizipenen multzoa... horietako edozein hitzen bidez deskribatu ahalko litzateke Antzuolako Herri Eskola, baina “eredu” hitza aukeratu du Arregik hango eskolako esperientzia erakusteko eta azaltzeko. Ez da, ordea, eredu itxiaz ari, etengabe bere burua elikatzen duen eredu bizi, ireki eta dinamiko batez baizik. Hala dio: “Filosofia oso bat dago Antzuolako Herri Eskolan egiten dutenaren atzean, eta hori jaso nahi izan dut nik. Gaur egun, hezkuntzaren arloko ikerketak begirada globalak egitea eskatzen du eta horretan saiatu naiz. Irakaslearen jarduna, metodologia eta gelako harremanak aztertzea baino konplexuagoa da hori; finean, komunitate batean sortzen den kulturaz ari baikara”.

Antzuolako Herri Eskolan proiektuak nola lantzen zituzten aztertzeko asmoz hasi zuen Arregik ikerketa. Berehala konturatu zen, ordea, horren atzean irakaslearen antolatze eta jarduteko modua dagoela, eta, aldi berean, galdera sakon bati erantzuteko nahia: “Zergatik egiten dut egiten dudana hau?”. Horrek ikuspegi globalagoa hartzera eta Antzuolako Herri Eskolako esperientzia ahalik eta modu osoenean azaltzera eraman zuen. Hala, DBHko 5. mailako gela ikerketarako oinarri hartuta, hiru galdera nagusiri erantzuten saiatu da tesian: 1. Zer pentsatzen dute Antzuolako Herri Eskolan hezkuntzaren inguruan? 2. Nola antolatzen dira? 3. Nola funtzionatzen dute euren egunerokotasunean?



Xabier Arregi

Hainbat arrazoi tarteko erabaki du Arregik tesia Antzuolako eskolaren inguruan egitea. Hasteko eta behin, Antzuola aspaldian dutelako erreferentziatzat HUHEZIn, eta ikasleekin hainbat eskola-eredu aztertzeko orduan ere ondo datorkielako sakontasun handiagoz ezagutzea horrelako esperientziak. Bestetik, gaur egun bogan dagoen “eredu eraikitzailearen” baitan koka daitekeelako Antzuolako kasua. Eta bukatzeko, hango eskolan egin duten lana errekonozitzeko.

Antzuolako esperientzia kontatzea ez zaio samurra egin Arregiri, akaso, ez delako “egitura teknologikoa” duen eredu bat, hau da, sorburutik ez dagoelako hain egituratua eta programatua, eta egin ahala eraikitzen delako, behetik gora: “Antzuolakoa batez ere bizipena da, eta bizipen horren araberakoa da egiten den ibilbidea”. Ereduaz mintzo bada ere, Arregik argi dio Antzuolakoa ez dela beste edozein tokitara estrapola daitekeen zerbait, bertako hezkuntza komunitateak eraiki duen ikuspegi bat baizik: “Hutsetik eraiki dute, ez soilik praktika modu bat dutelako, baizik eta

GAIA: ANTZUOLAKO HERRI ESKOLA

Autoelikatzen den eredu bizi bat

antolatzeko modu bat dutelako, euren artean eztabaidatu eta hausnartu egiten dutelako, egindakoa erakutsi eta publikatu egiten dutelako, eta jarduteko modu hori etengabe elikatzen doalako”.

Azken boladan ezagun egiten den korrante berri baten barnean koka daiteke Antzuolako ereduaren aburuz: soziokonstruktibismoan, hain zuzen. Denen artean taldeko bizitza eta pentsamendua, poliki-poliki, eraikitzen joateari deitzen zaio horrela, bakoitzak bizitzako esperientzia horien inguruan egiten dituen narrazioen bitartez. “Norberak bere bizipenak partekatuz eta guztiok guztionetik elikatuz, denon artean eraikitzen dugu bai ezagutza, bai gure bizitza, bai komunitatea...”. Horrexegatik, Antzuolako Herri Eskolan eurek irudikatzen duten gizarte eredugarria nolakoa, halako jarduna egiten saiatzen dira, hau da, amesten duten mundu horren simulazioa egiten dute egunero. Eta testuinguru horretan, haur bakoitzaren garapenari ez ezik, taldearen ere berebiziko garrantzia ematen diote.

Hezkuntzak eredu tradizionaletik eredu teknologikora jauzi egin duela argudiatzen du Arregik, eredu horretan kompetentzietan, helburuetan, prozeduretan... sekulako garrantzia ematen zaiela eta horrek gerora gelan egingo dena baldintzatzen duela. Hots, aurrez guztia “programatuegi” dagoela: “Ikasleak ezagutu gabe eta nondik abiatzen garen jakin gabe, nola eduki nezake alde aurretik zehaztuta nora heldu nahi dudan?”. Errealitate horren aurrean, Arregik uste du Antzuolako ereduak badituela zantzuak eskola batek zer nolako eboluzioa izan beharko lukeen erakuts dezaketenak. “Antzuolako ereduak orain dela 30 urte eta orain ez dauka zerikusirik. Asko aldatu da, hain juxtu, ikerketak egiten joan direlako eta maila teorikoan ateratako ondorioak pixkanaka euren esperientzian txertatu dituztelako. Garaiak aldatzen dira eta eskolak ere aldatu behar du”.

Hezkuntza, haurren eskubidea

Antzuolako Herri Eskolan kontuan izaten duten lehen printzipioa haurren ongizatea bermatzea da. Izan ere, uste dute hezkuntza haurren eskubide bat dela eta eskubide horri erantzunez jardun behar dutela. Premisa horri loturik, Arregik tesian jaso bezala, badute ikuspegi kultural oso bat ere: “Haurren ongizatea bermatuko badute, kontziente dira bizi garen mundu hau ulertzeko tresnak eskaini behar dizkietela”.

Arregik gaineratzen duenez, eskolan ikuspegi kultural

hori lantzeko, gizarteak kultura eraikitzeko jarraitu duen antzerako bide bat egiten dute: “Eta, nola egin dugu guk gizartearen bide hori? Bada, munduaren inguruan eta gure bizitzaren inguruan galderak egin eta galdera horiei erantzuten saiatuz, galdera guztiak baliagarriak izanik”. Izan ere, ikuspegi guztiak onartzea, partekatzea eta horien gainean hausnartzea eta ezagutza eraikitzea da Antzuolako esperientziaren ezaugarri nagusietariko bat.

Zenbait eredutan berehala okertzat jotzen dira erantzun batzuk; Antzuolan, ordea, ez. Ekarpen guztiak onartzen dira, irakasleek ez dute sekula esaten “hau ondo dago eta hori gaizki”, baizik eta ikasleak eurak, bakoitzaren interesen arabera, erabakitzen dute erantzun horietatik zein duten gogokoena. Funtsean, Antzuolan uste dute pertsonok baditugula ideiak eta horiek elkarrekin kontrastatuz eraikitzen dugula gure errealitatea, baita taldearena ere. Era berean, ezagutzaren eta kulturaren eraikuntza horretan aditu ahotsak tartekatzen dituzte, historikoki kokatuta. Gaia bere testuinguruan aztertzen saiatzen dira hala. Aristotelesen adibidea jartzen du Arregik: “Galdetzen dute garai eta gizarte hartan Aristotelesen zer-nolako kezka izango zituen galdera edo hausnarketa mota haiek egiteko. Horren atzean bada etengabe planteatzen duten ikuspegi historiko-kultural bat, Aristotelesen buruan jartzeko, ezinbestean, orduko errealitatea nolakoa zen ulertu behar baita”.

Testuinguru horretan, gela barneko komunikazioa da Antzuolako Herri Eskolan hezkuntza hautemateko duten moduaren elementu indartsuenetariko bat. Ikasleen eta irakasleen arteko elkarrizketan “benetan” komunikatiboak diren egoerak sortzen dituzte, ikasketa-prozesuan aurrera egitea ahalbidetzen dietenak. “Esate baterako, nik ikerketa egin nuen aldiaren eboluzioa aztertu zuten ikasleek: zer esaten zuten Darwinek eta Lamarquek? Zergatik hasi ziren auzi horien inguruan pentsatzen? Nola sailkatu behar ditugu animaliak? Zertarako balio digu horrek guztiak?”. Elkarrizketa kultural sakonak egiten dituzte Antzuolan, Arregiren esanetan. Eta, noski, horiek sor daitezen aurrebaldintza proposak jartzen dituzte.

Antzuolako Herri Eskolan hezkuntzari buruz duten ikuspegiaren barnean bada bereziki zaintzen duten beste arlo bat ere: curriculumarena, hain zuzen. Arregik adierazitako eran, curriculum zerbait bizi balitz bezala ulertzen dute. Prozesuak curriculum hitza erabiltzen dute definitzeko, hau da, egin ahala zehazten den curriculum. Hasieran, asmo eta helburu batzuk finkatu arren, ikasleen interesen eta gelako errealitatearen arabera, ikasturteak aurrera

GAIA: ANTZUOLAKO HERRI ESKOLA

egin ahala curriculuma berreraikiko dute guztien artean. “Aurrez aipatu dugun eredu teknologikoan badira helburu jakin batzuk, eta haurrak, nahitaez, helburu horiek erdies-tera bideratu behar dira. Antzuolako ereduari, aldiz, nahiz eta aurrez curriculum bat izan, baldin eta jomuga haurra-ren ongizatea bada, hasierako curriculum hori haurra-ren premia, nahi, desio, galdera, etab.-ekin alderatu eta uztartu beharko da. Horregatik diogu curriculuma, erabat, ikasturte amaieran zehazten edo ixten dela”.

Antolaketa, ikasleen premietara egokitua

Hezkuntza ulertzeko dituzten printzipioen arabera, da antolaketa Antzuolako Herri Eskolan, eta ez alderantziz. Alegia, hurrekin esperimentatzen, ikertzen eta hausnar-tzen joan dira, eta prozesu horretan antzemandako behar-rak asetzeko antolatzen dira antolatzen diren moduan.

Antzuolako Herri Eskolak, oro har, beste edozein eskolak izan ditzakeen antzeko egiturak ditu. Horretan ez dago al-daketarik. Baina desberdina da, esate baterako, irakasleek nola antolatzen duten euren dedikazioa. Irakasle guztien

orduak zaku berean sartzen dituzte eta ikasturte horretar-ako aurreikusten duten errealitatearen arabera, finkatzen dute irakasle bakoitzaren jarduna. Hasteko eta behin ikasle-talde bakoitzeko irakaslerik aproposena zein izan ote daitekeen ikusten dute, eta bestetik, zenbateko denbo-rra eskaini beharko litzaiokkeen talde horri. Gainera, zaku horretatik bi pertsonaren “liberazioa” ateratzen dute: bata HHrako eta bestea LHrako. Irakasle laguntzailearen figura osatzen dute bi horiek, koordinazio eta aholkularitza lanak egiten dituzte nagusiki. “Ez daukate tutoretzarik, baizik eta ziklo osoaren ardura”.

Era berean, bi irakasle horiek laguntzarako irakasleak ere badira eta gelaren batean beste irakasle baten beharra dagoela ikusten badute bi horietakoren bat sartzen da. “Bi irakasle horien figura oso inportantea da Antzuolan. Ulertu behar da testulibururik ez dutenez materialak sortu egin behar direla, haurrek planteatutako galderen arabera jarduerak diseinatu behar direla, gelan gertatutakoaren inguruan hausnartu behar dela... Eta, prozesu horretan, poliki-poliki joan dira ikusten bi irakasle laguntzailerekin hobeto funtzionatzen dutela. Horregatik diot dituzten premien arabera erabakitzen dutela antolaketa”.



Curriculum zerbait bizia balitz bezala ulertzen dute Antzuolako herri-eskolan, hau da, egin ahala joaten dira zehazten.

Egunerokoan, zer eta nola?

Gai globalen bidez egiten dute lan Antzuolako Herri Eskolan, eta gai horren barruan hainbat ikerketa-ildo lantzen dituzte. Arregik esplikatu bezala, bertako irakasleek uste baitute modu horretan nahi adina jakintza-arlo edo hezkuntza-dimentsio jorra ditzaketela haurrekin. “Esate baterako, aurrez aipatu dudan gizakiaren eboluzioaren gaia, ‘izaki bizidunak’ gai orokorragoaren barnean jorratu zuten”.

Ikasturte atarian, ordea, ez zekiten gai orokor hori zein izango zen. Kontua da Zuatza egin zutela irteera ikasturte hasieran eta ikasleek bertan izaki bizidunen gaineko jakin-mina azaldu zutela, eta hari tiraka hasi zirela gaia lantzen. “Ikasleengandik, euren interesetik abiatutako zerbait izan zen. Eta hala izaten da kasu guztietan”. Hain zuzen ere, horixe da Antzuolako ereduaren beste ezaugarri garrantzitsu bat: haurrek dituzten nahietatik eta egiten dituzten proposamenetatik abiatzen dutela ikerketa eta ikaskuntza-prozesu oro.

Behin gai nagusia edukita, poliki-poliki egiten dute bidea: “Jakingo genuke nola zaindu animaliak gelan bertan? Eta alboko aretoan animaliategia bat sortzen badugu?”. Hala, animaliak ekartzen dituzte gelara, ikusten dute animaliek zer behar duten bizitzeko, animaliategia garbi mantentzeko antolatzen dira, janaria ekarri eta kontrolatzen dute... Eta, gainera, bizitakoaz hitz egiten hasten dira: “Eta nola aztertu ditzakegu animalien ezaugarriak? Zein ezaugarri dituzte? Zeren arabera sailkatzen dira?”. Hala esplikatzen du Arregik: “Horrek garamatza sailkapeneta eta ikustera liburuetan animaliak era batera edo bestera daudela sailkaututa, eta horrek garamatza eboluzioaren gaira. Gainera, gai orokorraren barruan izaki berezi batzuk, perretxikoak hain juxtu, lantzen ditugu, ikasle batzuek horiek ikertzeko nahia azaldu dutelako. Eta orduan haur batek albiste bat ekartzen du: ‘Munduko izaki bizidunik handiena Kanadako onddo bat dela, 9 milioi metro koadroko hedapena duena’, eta horrek garamatza beste proiektu batera; ikustera onddo horrek zenbat lur hartzen duen, hau da, zenbat diren 9 milioi metro koadro horiek”.

Haurren interesetatik abiatzeaz gain, gai globalen arabera

eta proiektuak lan egiteak eta curriculumak modu irekian ulertuz jarduteak, ikasle bakoitzaren nahietara, erritmora eta mailara egokitzeko aukera ematen diela argudiatzen du Arregik. Eta, gainera, sarri, curriculumak zehazten dituen xede, eduki, prozedura, eta abarretatik harago joateko parada izaten dutela: “Antzuolak garbi erakusten du, beharra dutenean eta modua sortzen denean, curriculumak zehazten dituen baino eduki eta pentsamendu konplexuagoetan ere sar daitezkeela. Noski, ziur asko ikasle guztiak ez dira maila edo sakontasun berberera helduko, baina Antzuolan gehien inporta duena bakoitzak egiten duen garapena da: haurretariko bakoitza nondik abiatzen den, nola joaten den eraikitzen bere pentsamendua eta nora iristen den”. Izan ere, haur bakoitzaren eboluzioa uneoro aztertzen dute Antzuolan, etengabe jasotzen dituztelako haurren pentsamendu horiek. Irakasleek, etengabe eta ahalik eta modu naturalenean haurren ahotsak jasotzen dituzte, bakoitza non dagoen jakiteko eta horren arabera antolatzeko hurrena datozen jarduerak, bai zailtasunari dagokionez,



Tamaina errealean irudikapen asko egiten dituzte Antzuolan.

GAIA: ANTZUOLAKO HERRI ESKOLA

bai antolaketari begira. Haurren premien arabera neurtzen dute zein jarduera litzatekeen egokiena ikasketa prozesuari jarraipena emateko. Edota zeregin desberdinak eskaintzen dizkiete, haur bakoitzari aukerak emateko nahi duen horretan jarduteko, bere erritmoan. Edota era bateko laguntza eskaintzen diete ikasle batzuei eta beste era batekoa beste batzuei. Horretantxe oinarritzen dute ebaluazioa ere.

Gai globalen eta proiektuen arabera lan egiteko etengabe erronka berriei erantzun behar izaten diete Antzuolako irakasleek: “Nola jakin dezakegu 9 milioi koadroko izaki bizidun horrek zenbat toki hartzen duen?”. Aurrez ezer egituratua ez dagoenez, arazoak sortu ahala konpontzen joaten dira. Alde horretatik, gai global baten barnean lan-ildo ezberdinak jorratzen aritzeak lagundu egiten diete, egun batean proiektu bat eta hurrengoan bestea lantzen ari daitezkeelako. Azken batean, prozesua haur bakoitzaren eta talde osoaren beharren, nahien eta jakin-minen arabera antolatzen dute. Kontuan izan behar da jarduera batzuk hitz egitekoak izan daitezkeela, beste batzuk manipulazioak, beste batzuk kanpora irtetea eskatzen dutenak, etab. Ondorioz, irakasleek uneoro erabakiak hartu behar izaten dituzte: “Irakaslearentzat ere sekulako sormen-lana eskatzen du horrelako eredu batean aritzeak, etenik gabe euren jardun horren inguruan gogoeta egiten eta erabakiak hartzen ari direlako. Taldean, irakasleek eta ikasleek

elkarrekin egiten duten ikerketa lan bat dago atzean”. Arregik eranstean duenez, elkarreragin horretatik sortu diren galderei erantzuten joaten dira poliki-poliki, beharrezko materialak, jarduerak, gogoetak... eginaz. Baina, beste alde batetik, irakasleak berak ere ikasleen inguruko ikerketa egiten du: taldea nola dagoen, ikasle bakoitzaren eboluzioa nolakoa den, zein interes dituzten, zein premia dituzten, zein desberdintasun dauden batzuen eta besteen artean, desberdintasun horiei nola erantzuten zaieen...

Gai baten lanketa edota gai horren barruan jorratutako proiektuak amaitzen dituztenean sozializazioa egiten dute, hau da, egin duten lan horren guztiaren berri ematen diete beste ikaskideei, eskolako irakasleei, gurasoei eta familia-kideei nahiz herritarrei. Egin duten lan horren guztiaren erakustaldia izan ohi da eta horrek ere esfortzu handia eskatzen die: zer eta nola aurkeztu, nork zer egin, publiko bakoitzera erakustaldia egokitu... “Sozializazio prozesua beste une garrantzitsu bat izaten da. Zeren haurrek erakusten baitute nondik abiatu ziren; adibidez, izaki bizidunen gaia non eta nola sortu zen eta handik abiatuta zein arlo jorratu dituzten eta zein ikerketa joan diren egiten ibilbide horretan. Sozializazioa, beraz, ikasketa-prozesuaren gaineko beste hausnarketa indartsu bat da. Hortaz, esan dezakegu, ikasleek eurek, proiektuaren amaieran bizi izan dutenaren gaineko autoebaluazioa egiten dutela.

Aurrera begira, zer?

Komunitatera irekiriko eskola da Antzuolakoa eta gurasoen ahalik eta parte-hartze handiena bilatzen saiatzen dira. Gertukoa beti dago presente gela barruan. “Esate baterako, izaki bizidunen gaia lantzean, haurretako baten aita albaitaria izaki, haurrekin elkarrizketatu zen. Edota, izaki bizidunak naturaren gaiarekin lotu zituzten eta Antzuola 2010. urte hartan ezartzera zihoazen Atez Ateko hondakinen bilketa aztertu zuten. Baina horiek adibide soil batzuk baino ez dira. Etengabekoa da hurbilekoaren presentzia ikaskuntza prozesuan”. Hala ere, Arregik azpimarratzen duenez, gizartea aldatu den heinean, gurasoek eskolan duten parte-hartzea ere apur bat ahuldu egin da, ziur asko, aukerak ere gutxiago dituztelako orain. Aurrera begira lantzen jarraitzeko arlo bat hor dute, beraz, irakaslearen iritziz.

Beste erronka handi bat ere badute Antzuolan: ereduaren jarraikortasuna bermatzea. Horixe da uneotan bertako irakasleen kezka nagusienetariko bat. Kolektibo osoa ari

bada ere parte hartzen herri-eskolaren orain arteko esperimentiarekin aurrera egiteko, “batzuen parte-hartzea eta inplikazioa handiagoa da beste batzuen baino”. Arregiren hitzetan, Antzuolako eredu martxan jarri zuten irakasleen belaunaldiko gehienak erretiroa hartzen ari dira eta konturatu dira, ziur asko, beste zenbait irakasle ez dituztela behar beste ahaldundu. “Uneotan erronka polit baten aurrean daudela esango nuke. Nola erantzun egoera berri honi?”.

Behin eredu bermatuta, egunerokoari erantzuten ere nahiko erronka badutela irizten du Arregik. Hezkuntzaren arloan teoria eta ildo berriak ari direla agertzen ikusten badute, ziur asko Antzuolan segituan hasiko dira horiek ikertzen eta horrekin batera ernaltzen diren premia berriei erantzuten. Antolaketari dagokionez ere, garrantzitsua iruditzen zaio Arregiri etenik gabe begiratzea eta hausnartzea noraino den egokia sortu duten egitura hori. “Euren filosofia ez dadila izan: ‘Beno, egin dugu, honaino iritsi gara eta hauxe da Antzuola’. Ez, ez. Antzuola bizirik dagoen eredu bat da, zerbait irekia eta dinamikoa, etengabe aldatzen, egokitzen eta hobetzen ari dena, eta horrela izan behar du”.



“Eroso komunikatzera iristeko,
haurrak euskaraz aditzeko
eta aritzeko aukera nahikoak
eta askotarikoak bizitzea behar du”

ELKARRIZKETA: PAULA KASARES

HIZKUNTZALARIA ETA NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO IRAKASLEA

Hizkuntzalaria eta antropologoa ikasketaz, soziolinguistika arloan ikertu du: 'Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan' doktorego-tesiaren egilea da Kasares. Gainera, dibulgazio-lanetan aritzen da: seme-alabak euskaraz eskolatu dituzten guraso ez-euskaldunei zuzenduriko

saioak egiten ditu, euskararen jarraipenean horiek duten arduraz jabearazteko.

Euskara-teknikaria eta NUPeko Filologia eta Hizkuntza Didaktika Saileko irakasle elkartua ofizioz, Nafarroako Euskarabideko Euskararen Plangintza eta Sustapen Zerbitzuko zuzendari izendatu berri dute.

Zure tesian diozu, bereziki Nafarroako egoerari eginez erreferentzia, euskararen transmisioan etena izan dela zenbait leku eta belaunalditan, eta euskara berreskuratzeke lanean gaudela. Gauzak horrela, hainbat guraso ez euskaldunek, euskarazko ereduetan eskolaratzen dituzte haurrak: eskolaren gain gelditzen da euskara transmititzeko arduraren parte handi bat. Baina, hezkuntza-sistemak hartzen al du bere gain ardura hori? Konstziente al da egokitu zaion lanaz eta prest al dago horretarako?

Galderaren inguruan hainbat ñabardura egin nahiko nituzke. Egia da berreskurapen egoera batean gaudela. Soziolinguistikak batez ere hizkuntzen galera-prozesua ikertu du, eta aski ongi ikertu du, baina ez du berreskuratze-prozesua hain sakon aztertu. Kontzeptu egokien faltan gaude. Segitzen dugu, adibidez, *transmisioa* erabiltzen, eta kontzeptu horrek ideia bertikala du barnean, goitik beherakoa: bada norbait bertze norbait zerbait transmititzen diona, eta normalean bertze hori azpian dago, gazteagoa da... Horrela irudikatu dugu: goitik behera heldu den zerbait. Baina zer gertatzen da

gurea bezalako berreskuratze-egoera batean? Familia anitzetan belaunaldi gazteak dira euskararekin harremanetan hasi direnak. Kasu horietan noren bidez, eta haurren bidez sartzen da euskara etxe batean.

Halako kasuetan oso argi ikusten da: euskara modu batean edo bestean gurasoei ere iristen zaie. Eta garrantzitsua da haiek nola erreazionatzen duten, zer jokaera izaten dituzten. Beraz, nire ikerketetan *transmisio* kontzeptu horretatik atera naiz eta ikusi dut hizkuntza ez dela bakarrik goitik behera heldu den kontu bat, baizik eta haurrak edo belaunaldi berriak hitzun bilakatzeko prozesua elkarreragilea edo interaktiboa dela: eraginak behetik gora, goitik behera eta ezker eskuin gertatzen dira. Hau da, haurrak bilakatzen dira euskaldun, ez bakarrik gurasoek edo irakasleek irakasten dietelako, baizik eta haiek beren harremanetan mintzaira erabiltzen dutelako. Alde horretatik, haien berdin, adinkideen arteko harremanak oso garrantzitsuak dira. Orduan, kontzeptua aldatzearekin batera, errealitateari begiratzeko beste modu bat eta beste bide batzuk daudela ikusten dugu.

Bestalde, galderari erantzunez, egia

da berreskuratze-prozesu honetan familiak ez duela protagonismo osoa. Protagonismo hori tradizionalki familiari esleitu izan zaio, galera-prozesuak ikertzean transmisioaren paradigma horretatik aztertu delako. Familiaren garrantzia handia da, dudarik gabe, baina badira prozesuan eragiten duten bertze agente batzuk ere.

Erraterako, familia aski da hizkuntza batek bizirik irauteko? Ez. Hain zuzen ere, ikerketa soziolinguistikoei eta arriskuan dauden munduko hizkuntzen txostenek diotenez, familian bakarrik erabiltzen diren hizkuntzak galtzeko bidean daude. Hori gertatzen zaie, adibidez, etorkinei edo bere sorterritik bertze leku batera migratu dutenei: ondoko belaunaldiek, edo horien ondokoek, hizkuntza galtzea oso litekeena da. Orduan, familiak badu garrantzia, baina erlatiboa: familiak soilik ezin izanen luke gaur egun euskararen belaunez belauneko jarraipena bermatu. Hizkuntzak gehiago behar du, hiztunak gehiago behar du.

Are gehiago, euskararen galtze-prozesua aztertzen delarik, beti honakoa erran izan da: gurasoek ez zieten euskara transmititu beraien



seme-alabei eta horregatik galdu zen hainbat herritan. Nafarroan egindako azterketan ikusi dudanez, horrek ñabardura bat behar du. Zenbait herritan euskara ez zen galdu familietan gurasoek haurrei irakatsi ez zitelako, baizik eta haurrek euskara ikasteko eta erabiltzeko zuten aukera bakarra etxea mugatzen zelako. Hau da, erdara hutsezko eskolara joaten ziren eta, plazan, kanpoan, jada erdaraz zuen hartua giza-harremanen eremu hori. Ohituta zeuden kanpoan haurrideen, anaia-arreben artean erdaraz egitera, eta zer pasatzen zen etxera joaten zirelarik? Nahiz eta gurasoek umeei euskaraz egin, haurrek erdaraz erantzuten zuten.

Baziren egoerak non gurasoek oso garbi ikusten bitzuten etxea euskararen eremua zela eta ez zuten haurren hizkuntza berriaren ekartze horren aitzinean men egin. Baina bertze batzuek, aldiz, bai. Azkenean, haurrek beraiek zekarten kanpoko hizkuntzaren presioa etxera. Orduan, familiaren garrantzia ñabartu behar da. Dena dela, horrek ez du erran nahi familia ez denik funtsezkoa. Baina are eraginkorragoa izanzen da baldin eta bertze eremu batzuen laguntza baldin badu.

Hurrengo eremura joanen gara: eskolara. Nik ez dut ezagutzen berreskuratze-prozesuan dagoen hizkuntzarik hezkuntzaren laguntzarik ez duenik. Gure kasuan ere pentsaezina izanzen litzateke euskararen gizarte berreskuratzea irudikatzea D eredutzat ezagutzen dugun eskola-errealitate hori gabe.

Eskola jakitun da zein rol garrantzitsu duen prozesu horretan? Uste dut euskal eskola (eta, euskal eskola diodalarik, erran nahi dut euskaraz hezkuntza bideratzen duen edozein eskola eredu), badela nolabait horren jabe. Baina anitz hobetu behar da.

Zertan hobetu behar du?

Alde batetik, ahozkoaren lanketaren sistemizazioa. Maila didaktikoan, euskarazko komunikazio-gaitasunen lanketa hobetu behar dugu; batez ere ahozkotasuna, eta, batik bat, gizaratean euskara erabilera handiko hizkuntza ez den kasu horietan. Eta, noski, aztertu zein modutan egin hori

ikasleak euskaraz ahalik den erosoan sentiarazteko.

Alde horretatik, bada azken urte hauetan kezka, ikerketak egin dira eta badira proiektuak ahozkotasunari lotuak, eta hori beharrezkoa da. Adibidez, *Arrue* proiektua bezalako ikerketek [LMH4ko eta DBH2ko EAEko ikasleen hizkuntza-erabileraren azterketa, 2011n Eusko Jaurlaritzak, Soziolinguistika Klusterrak eta ISEIk egin] agerian utzi dute irakaskuntza-jarduerak ez ezik, ikasleen hizkuntza-jokaeretan eragina dutela irakasleen hizkuntza-portaerek eta ikastetxeak oro har euskarekin duten konpromiso mailak, hizkuntza-planek, erraterako.

Bertze alde batetik, jakin badakigu eskolak eta familiak elkar osatzen badute, haurren hizkuntza-jabetze prozesu hori esponenzialki biderkatzen dutela. Baina eskolak ez ditu bide horiek sistematizaturik. Zenbait ikastetxetan bada kezka, programak, guraso-eskolak... egiten dira familie haien egitekoaren inguruan informatzeko. Baina horretan ere badugu hobetzerik.

Soziolinguistika klasikoak, eta euskal soziolinguistikak, hizkuntzaren bi transmisio bide bereizi ohi ditu. Alde batetik, transmisio naturala, eta, bestetik, kulturala: etxekoa da bata, familiak egiten duena; eta eskolak egiten duena bestea, formalagoa. Ni dikotomia hori hautsi behar delakoan nago. Gaur egun etxe erdalduko haur bat euskarazko haur eskolan uzten badugu, hori zer da, transmisio naturala edo kulturala? Formala edo informala? Dikotomia horrek gaur egun ez du balio, egun biak baitoaz bateratsu. Bi eragile-sozializatzaile horiek, eskola eta familia, nor bere bidetik joan beharreen, elkarri eragiten diote, elkar indartzen dute.

Adibidez, aztertu dudanaren arabera, 80ko hamarkadan Nafarroako Hezkuntza Sistema publikoan euskarazko eskola hasi zelarik, Mendialdeko hainbat herritan horrek zerbait eragin zuen familietan: familia barruko transmisioa aktibatu zuen. Hau da, eskolak familiaren euskara piztu zuen, eta familiak eskolaren irakaslan sendotu. Erran nahi dut bi errealitate horiek elkar ukitu egiten

“Familiak soilik ezin izanen luke gaur egun euskararen belaunez belauneko jarraipena bermatu. Hizkuntzak gehiago behar du, hiztunak gehiago behar du”

“Pentsaezina litzateke euskararen berreskuratzea irudikatzea D eredutzat ezagutzen dugun eskola errealitate hori gabe”

“Familia eta eskola; dikotomia hori hautsi behar delakoan nago. Gaur egun ez du balio, bata eta bestea erabat lotuak daude. Bi eragile-sozializatzaile horiek, nor bere bidetik joan beharreen, elkar eragiten dute, elkar elikatu”



dutela oso modu agerian.

Baina eskolak bakarrik euskaldundu al ditzake ingurunean nahiz familian euskaraz bizi ez diren umeak? Izan ere, entzun izan dizugu haurrek esna dauden denboraren % 15a pasatzen dutela ikasgelan...

Nik dakidala, Lasarte-Oriako Udaleko euskara teknikariak, Iñaki Arrutik objektibatu zuen lehen aldiz datu hori, baina kalkulua edonork egin lezake erraz asko: eskola-egutegiak hainbat egun ditu urtean, legez zehaztuak; eguneko hainbertze lo ordu kendu, eta ikasle batek urteko esna orduen zer portzentaje ematen duen ikasgelan atera dezakezu: % 16 inguru.

Baina, ez dugu pentsatu behar ikasgelan euskara baizik ez denik egiten. Curriculumeko bertze hizkuntzak ere hor daude; beraz, ehuneko hori are apalagoa da da.

Orduan, gurasoei, zer eskatu genie-

zaieke? Euskaraz jakin ez arren, nola indartu dezakete haurrak euskalduntzeko eskola egiten ari den lana?

Hitz batekin erantzunen nuke: motibazioa. Gainera, hitz horrek guraso guztientzako balio du.

Gurasoei zuzenduriko saioak egiten ditut Euskal Herri osoan barna, eta lan hori arras inportantea dela iruditzen zait: familiei ikusaraztea haurrek zer bide egin behar duten hiztun bilakatzeko. Informazio falta handia dago. Izan ere, hizkuntzalariok argi daukagu zer behar duen hiztun batek hizkuntzan eroso izateko; eta badakigu hori ez dela egun batetik bestera lortzen, ez duela eskolak bakarrik bermatzen. Guk oso gauza jakintzat jotzen dugun hori, ordea, gurasoek ez dakite. Eta, ez jakinda zein den umeek etxean egiten ez den hizkuntza batean hiztun oso izateko eta eroso aritzeko egin behar duten bidea, euskara haientzako behar komunikatibo guztiak asetzeko baliabidea bat

izateko... Ez jakitean haurrek zer behar duten, ez dakite beraiek, euskara jakinda edo ez jakinda, guraso gisa prozesu horretan zer rol duten.

Gurasoentzat eta maisu-maistrentzat egiten ditudan saio horiei nik garrantzia handia ematen diet, nolabait nire ikerketa-lanaren osagarri delako. Nik dibulgazio zientifikoa egiten dut, adibidez, *Bat* soziolinguistika aldizkarian, edo biltzar batera komunikazio bat eramatean, edo tesia argitaratzean... hori komunitate zientifikorako egiten dudana hedapena da. Baina berreskuratze-prozesuan dagoen hiztun taldea gara eta zenbait behar premiazko ditugu: jakin behar dugu, adibidez, gure belaunaldi berriek euskal hiztun bilakatzeko zer behar duten eta behar horiek asetzen asmatu behar dugu.

Hori behar bezala hedatzea arrunt inportantea da: haurren hizkuntza sozializazio-prozesu edo euskal hiztun bilakatzeko prozesu horretan

parte hartzen dute agenteak jakitun izan behar dute zein izan daitekeen beren egitekoa.

Izan ere, eskola eta familia norabide berean aritzen direlarik, haien eragina esponenzialki biderkatzen da. Gero, ikerketak egiten direlarik, hori ikusten da. Ez bakarrik eskolak, ez bakarrik familiak, ez bakarrik komunitateak, baizik eta eraginak metatzen direlarik, gure gazteen hizkuntza-gaitasunak eta erabilera-portaerak nabarmen dira hobek.

Non ikusten ditugu erabilera aldetik edo hizkuntza-portaeren aldetik hutsuneak? Bada, eragin-metatze hori ez dagoelarik. Iruñean egin nuen landa-lanean ikusi bezala: euskara haurren edo gaztetxoek bizitzan uharte bat delarik, bizitza alor bakar batean baizik egiten ez den hizkuntza delarik, adibidez eskolan.

Eta familia euskaldunetan, zein da gurasoen egitekoa euskararekiko jarrera positiboak eta erabilera bermatzeko?

Guraso euskaldunek hizkuntza-portaeretan jokoera edo rol garbiagoa dute. Haurren hizkuntza erabilera-portaerak finkarazi ditzakete etxeko aztaren bidez, euskara etxeko mintzaira egiten. Hori ikerketetan argi agertzen da: gaztetxoek hizkuntza atxikimendu handiagoa dute, baldin eta etxean egiten badute, etxeko hizkuntza bada. Gainera, euskara eskolako hizkuntza ere baldin bada, aukera gehiago dute adinkideekin ere erabiltzeko, euskarazko erabilera ohitura finkatua izateko.

‘Eskola eta etxea ez daitezela izan bi mundu linguistiko desberdin’, zure hitzaldietan aldarrikatu ohi duzu. Zer errealitate, zein kasuistikekin egiten du topo D ereduko eskola batek?

Aipatu dizkizudan saioengatik harreman estuak izaten ditut ikastetxe anitzetako maisu-maistrek, eta, erraten didatenez, badira gurasoak haur txikia eskolan uztera doazelarik *buenos días* batekin agurtzen dutenak, agur esaldi-eginetan edo hitz soiletan inolako ahaleginik egin gabe. Pentsatzekoa da, hori egiten badute eskola atarian, etxean ere hizkuntzarekin jarrera bertsua izanen

dutela. Anekdota horri loturik, maisu-maistrei aditu izan diet haurrak euskal hiztun bilakatzeko prozesuan gurasoren bat euskalduna izatea bezain garrantzitsua dela gurasoen motibazioa, euskaldunak izan ala ez. Haurrei antzematen omen zaie nork ez duen etxean inolako motibaziorik.

Hizkuntza jakitea beti on da, baina hizkuntza jakin ez arren motibatuta dauden gurasoek ere arrunt egiteko polita dute. Hizkuntza ez dute transmititu ahal, ados, ez dakitelako, baina hizkuntzari lotutako jarrera eta balio onak transmititzen ahal dituzte.

Haurrek ez dituzte hizkuntzak modu abstraktuan ikasten; hizkuntzari loturik doaz balio batzuk, elementu batzuk, mundu ikuskera bat, emozio bat... Agian guraso batzuek hizkuntza ez dakite, baina baliatu behar da haurra hizkuntzaz jabetzeko prozesuan laguntzeko duten motibazioa. Eta hori ez bazaie erraten, inork ez badie erran ‘hori izan daiteke zure rola’, gurasoek ez diote motibaziorik baliorik emanen eta ez dute jarrera proaktiboa hartuko.

D ereduan hizkuntzari inolako ez leku ez atxikimendurik ez dioten familiak aurki ditzakegu; bai eta etxean hizkuntzaren erabilerarekin eta haurren euskarazko sozializazioarekin oso inplikaturik dauden gurasoak ere. Anitza da D ereduan dagoen egoera; errealitatearen isla bat, onerako eta txarrerako. Hizkuntzarekin inolako hurbilpenik ez duen familia horrek haurra D eredura eraman du agian herriko aukera bakar delako, baina haur hori jada eredu euskaldun batean dago. Eta guri interesatu behar zaiguna da haur horri zer bide emanen diogun euskaraz eroso sentitzera iristeko; euskara ere izateko, bertze hizkuntza bat edo batzuk izanen dituen bezala, komunikatzeko baliabide bat, ongi bizitzeko baliabidea.

Izan ere, nik euskararen edo edozein hizkuntzaren irakaskuntza, zorientasunari laguntzen dion elementutzat ikusten dut. Hizkuntza hobeki bizitzeko baliabide bat da, eta hori ere ez da erraten. Zergatik nahi duten seme-alabek euskaraz ikastea galdetuta, gutxitan erantzuten da ‘zorientasunago bizitzeko’. Gure errealitatean hala beharko luke, harremanak egiteko,

“Hizkuntza jakitea beti da on, baina hizkuntza jakin ez arren motibaturik dauden gurasoek ere arrunt egiteko polita dute haurren hizkuntza jabetze-prozesuan. Hizkuntza ez dute transmititu ahal, ados, baina hizkuntzari lotutako jarrera eta balio onak bai”

“Nik euskararen edo edozein hizkuntzaren irakaskuntza, zorientasunari laguntzen dion elementu bezala ikusten dut. Hizkuntza hobeki bizitzeko baliabide bat da”

“Arras inportantea da familiei adieraztea haurrek zer bide egin behar duten hiztun bilakatzeko”

inguruan gertatzen dena hobeki ulertzeko... Bertakotua egotea bizi kalitatearen bertze elementu bat da.

Zein da eskolaren rola guraso ez-euskaldunak dituzten haurrei laguntzeko euskara beraien egiten?

Azken urteetan, hainbat eskolak, aurrematrikulazio garaietan eta ikasturte hasmentan egiten dituzten aurkezpen-saioretan, zenbait mezu helarazten dizkiete bereziki guraso erdaldunei, haien egitekoa zein izan daitekeen azalduz. Batik bat, haurrak motibatzea eta etxean ere haurrak hizkuntzarekin loturaren bat izatea ahalbidetzea zer garrantzitsua den azaltzen diete: kanta batzuk entzutea, noizbehinka telebistan zerbaitek ikustea, edo euskarazko ipuinak izatea... Hau da, gurasoei ikusarazten diete haurrak eskolatik kanpo ematen dituen ordu horietan ere euskararekin harremanen bat izaten segitzea onuragarria dela. Gero, haurra handitzen delarik, eskolaz kanpoko jardueren garrantzia aipatuko zaie gurasoei. Lan horretan, batzuetan kanpoko espezialistekin saioak egiten dira; adibidez, Iñaki Eizmendik egiten ditugisa horretarako saioak, baita nik ere.

Badut hitzaldi formatu bat, *Euskeraren un idiomaren en casa* izenekoa, berezi-bereziki lehenbiziko aldiz haurra euskaraz eskolatu duten guraso erdaldunentzako. Saio horietan ideia hau azpimarratzen dut: euskara jada sartu da zuen haurraren bizitzan, eta, zuen haurraren bizitzan sartu bada, pentsatzekoa da neurri batean bederen zuen bizitzetan ere sartu dela. Beraz, zer leku egiten ahal diogu etxean euskarari? Hizkuntza ez badakigu ere, nola laguntzen ahal diogu umeari? Eta motibatzeke zenbait moduzehatz eta egingarri azaltzen dizkiet.

Zenbait ikastetxek beren gain hartu dute gurasoekin egiten den lan hori. Segur aski orain duela urte batzuk baino nabarmenagoa delako D ereduko haurren familietan zer aniztasun dagoen. Kanpotik etorritako familiak ere ugari dira. Bada, guraso horiei ere haurrari zertan laguntzen ahal dioten erran beharko zaie, haurrak hizkuntza ikasteko zergatik den inportantea haien egitekoa.

Azpimarratuko nukeen hitza mo-

tibazioa da, eta motibazioak ez du zer ikustekorik euskara jakitearekin: motibatzea gurasoen jarrera bat da. Beraz, berdin egiten ahal dute guraso euskaldunek eta euskara ez dakiten gurasoek, nor bere moduan, bere mailan eta bere bidetik.

Zer modutan eragin dezake eskolak haur horien euskalduntzean? Nahikoa da edukien euskarazko transmisioarekin?

Zertarako, hizkuntza ikasteko edo hizkuntza horretan benetan eroso sentitzeko? Denok ikasi dugu hizkuntza bat eskolan eta badakigu hizkuntza jakite horretan zer maila dauden. Denok sentitu dugu zer den hizkuntza jakitea komunikatzeko pixka bat, baina zein zaila den sentitzea hizkuntza horretan ere zu zarezela; zeure behar komunikati boak, behar emozionalak eta sozialak, lan mundukoak... asetzea hizkuntza horretan.

Azken urte hauetan eskola-curriculumak ere oso garbi erakusten du helburua haurren komunikazio gaitasuna lortzea dela, eta horretan aintzat hartzen du hizkuntza formala eta informala, edukiak, emozioak eta harremanak... hori ez dugu begi bistatik galdu behar. Haurrak zer behar duen komunikazio gaitasun hori lortzeko? Eroso komunikatzera iristeko, haurrak euskaraz aditzeko eta aritzeko aukera nahikoak eta askotarikoak behar ditu.

Azken honekin, bi gauza erran nahi ditut: euskaraz aditzeko eta aritzeko aukera nahikoak behar dituela diodalarik, erabilera ohikoa, egunerokoa, usua erran nahi dut, kuantitatiboki aski dena. Eskolak ez du begi bistatik galdu behar haurrak urte osoko esna orduen % 15 inguru baizik ez dela ikasgelan ematen. Gaur egun, gainera, badakigu eskola orduetan ez dela dena euskaraz, bertze hizkuntza batzuek ere badute curriculumean tokia. Hori agian ez da nahikoa kuantitatiboki.

Baina, horretaz gain, erran dut haurrak euskaraz aditzeko eta aritzeko aukerak askotarikoak behar dituela. Hau da, elementu kualitatibo bati egiten diot erreferentzia, eta zera erran nahi dut: hizkuntza komunika-

zio egoera ezberdinetan erabiltzeko aukera behar duela haurrak. Badakigu eskolak bai formaltasun bai informaltasun egoerak barne biltzen dituela. Baina eskola mundua pixka bat ezagutzen duen batek badaki Haur Hezkuntzan dena dela ahoz, oso ludikoa. Eta, aldiz, Lehen Hezkuntzan hasi eta idazketa-irakurketa prozesuan aitzina egiten duten heinean, haurrek testuen gainean lan egiten eta azalpen bat aditzen eta ulertzen ematen dutela denbora gehienbat, ez solasean. Haur batek euskararekin duen harremana horretara bakarrik mugatuko balitz, agian hori ez litzateke erabilera aukera askotarikoa izanen.

Hortik kanpo gertatzen diren jolas-egoerak, haserraldiak... behar ditu. Gizartean bizi dugun edozein komunikazio-egoera, hizkuntza ikasteko eta hizkuntzaz jabetzeko egoera da. Eta, hizkuntza batean ongi aritzera iristeko, hori behar dugu: aukera nahikoak kuantitatiboki eta askotarikoak kualitatiboki, helburu komunikati bo ezberdinak dituzten egoeretan hizkuntza aditzeko eta erabiltzeko.

Gure gaztetxoek ez dute arazorik izaten teorema matematiko bat azaltzeko euskaraz, edo historiaren pasarte bat kontatzeko. Non izaten dituzte batez ere arazo komunikati boak? Bada, eskolakoak ez diren komunikazio-trebetasunetan: normalean informalo goak direnetan, emozioei loturiko horietan... Eskolak ere egiten ahal du berea, lehenago erran dudan moduan. Hain zuzen ere, eskola jabetu da euskarazko komunikazio-gaitasun horretan ahozkotetasunak duen garrantziaz. Baina garbi dago eskolak ezin diola erantzun berak bakarrik osoki hiztunaren beharrei, batez ere hiztun berriei dagokienez.

Beraz, guraso batzuek, nahiz eta euskaraz ez jakin, nahi baldin badute beren haurra iristea euskaraz gaztelan bezain ongi edo ia bezain ongi moldatzera, hau da, euskarak ere balio izatea haur horri bere behar komunikati bo guztiak asetzeko; guraso horiek argi ikusten badute hori nahi dutela, eta badin badakite haurrak zer behar duen horretarako, egin ahal dute zerbaitek. Etxean ahal dela aukera



emanen diote haurri hizkuntzarekin harreman bat izateko, bilatuko dute eskola ez dagoen aldietan, udan edo, euskaraz harremanak izaten segitzeko aukeraren bat, eskolaz kanpoko jardueretan edo. Haurrak garbi izanen du, gurasoek euskaraz ez dakitela, baina sentituko du gurasoentzat garrantzitsua dela berak jakitea, eta pozten direla eta balioesten dutela. Gurasoek, alde horretatik, lan handia egin dezakete.

Bestalde, zenbait familia euskaldunetan etxeko hizkuntza-ohituretan gaztelania izaten da nagusi. Kasu horietan, eskolaren gain uzten al da, ez ezagutzaren transmisioa, baizik eta erabileran transmisioa?

Zer aukera du eskolak, sentiberatzeko zenbait mezu emateaz gain, familieren barneko hizkuntza-harremanak aldarazteko? Ikastetxeetan guraso euskaldunentzako saioak eskatzen dizkirate, hain zuzen ere motibazioaren garrantzia, portaeren lanketen garrantzia azaltzeko. Baita gurasoen ikuspegi akritiko hori lantzeko ere; izan ere, hainbatetan ez die axola haurren hizkuntza-portaerak. Hain zuzen ere, galdera hori planteatzen diet saioetan: axola behar al digu gure haurren hizkuntza-portaerak? Gurea bezalako hizkuntza-errealitate batean, hizkuntza-portaerak dira, azken batean, gaitasunaren sostengua, eta portaera horiek elikatu behar dira, motibatu behar dira. Gure haurrek, gure gaztetxoek, erdarak jakin nahi dituzte, eta, gainera, erdarak erakarmen handiko hizkuntzak dira, bereziki zenbait adinetan. Eta ongi da erdarak jakitea, ongi da horiek ahalik eta hobekien ezagutzea.

Nire saioetara etortzen diren familiei erraten diet: ‘Gure haurrek, euskaldunak izanda ere, handitzen direlarik, ez dute zer ikustekorik izanen duela 50 urteko euskaldunekin’. Duela 50 urteko euskaldun jendeak euskara zekien etxean ikasi zuelako, edo inguruan, auzoan... eta segur aski euskara zen hobekien egiten zuten hizkuntza, eguneroko hizkuntza zelako. Baina gure haurrak, handitzen direlarik, ez dute zer ikustekorik izanen tipologia horrekin, beste hiztun tipologia izanen dira: euskara jakinen

“Gurea bezalako hizkuntza-errealitate batean, hizkuntza-portaerak dira, azken batean, gaitasunaren sostengu, eta portaera horiek elikatu behar dira, motibatu behar dira”

“Etorkizuneko hiztunek euskara egingen dute, baldin eta nahi badute; hau da, euskaraz egingen dute, hautatzen badute”

“Nahi nuke gure haurrek eramatea euskararen motxila bi besoetan ondo sartuta, bizkarrean ondo paratuta; ez izatea tentaziorik bizitzaren bidean motxila hori bazter uzteko, pisu eta baliogabe zaielako. Eta, ez dute bazter utziko uste badute motxilan daramatena haien bizitzarako garrantzitsua dela”

dute, baina euskararekin batera, gaztelania edo frantsesa, ingelesa eta agian beste erdal hizkuntzaren bat ere jakinen dute... Eta euskaraz eginen dute, baldin eta nahi badute, hautatzen badute.

Hautuarena ideia garrantzitsua da. Eremu erdaldunetan bizi den jendeak garbi du euskaraz hitz egitea hautu bat dela, erabaki bati erantzuten dio. Premia dute? Bada ez, solastatzen diren guztiekin gaztelaniaz egiten ahal dute; hautu bat egon da euskaraz aritzeko. Nolabait, hautua da gure hizkuntzaren erabilerari eusten dion elementua. Hautu horren atzean hamaika arrazoi egon daitezke: gure hurrek, handitzen direlarik, zergatik eginen dute euskaraz? Zenbait arrazoi arrunt subjektiboak dira: maiteago duzulako, hobeki sentitzen zarelako, hizkuntza horri bertze elementu batzuk lotzen dizkiozulako, eta abar. Orduan, gure haur eta gaztetxoek hemendik urte batzuetara euskararen aldeko hautua egitea nahi badugu, orain hasi behar dugu hautu hori elikatzen. Hautu hori elikatu behar da haurtzarotik, euskarari gauza batzuk lotzeko; bertze hizkuntza batzuk jakinda ere, horiei lotzen ez dizkietenak.

Hori azaltzeko motxilararen metafora erabiltzen dut: gure hurrek euskararen motxila eramanez dutela irudikatzen dut; baina bertze motxila batzuk ere botatzen ahal dituzte bizkar gainera. Nahiz eta motxila gehiago eraman, nik nahiko nuke gure hurrek euskararen motxila bi besoetan ongi sartuta eramatea, bizkarrean ongi paratuta, nahiz eta gainean bertze batzuk izan. Nahiko nuke gure hurrek ez izatea tentaziorik bizitzaren bidean euskararen motxila bazter uzteko, pisu eta baliogabe egiten zaielako.

Eta ez dute motxila hori bazter utziko, baldin eta motxila horren barnean daramatena haien bizitzarako garrantzitsua dela uste badute. Azken batean motxila haurtzaroan hasi behar da betetzen, eta etxetik. Hizkuntzari lotzen zaion berotasun hori, euskaraz ez dakiten gurasoek ere neurri batean eman dezakete, ez daude rol horretatik erabat salbuetsita. Eta, noski, euskara dakiten fami-

liek oso modu garbian egin dezakete.

Hizkuntzaren ezagutzaz harago, hizkuntzari balioa eman behar al dio eskolak?

Lan hori azken batean komunitateari dagokio. Hiztunok sentitzen dugu gure hizkuntzak baduela garrantzia gizartean, eskaintza-eskaera batzuk hizkuntzari loturik badirelako. Hizkuntzek toki bat dute gizartean: estatus bat, presentzia bat, hizkuntzei esleitzen zaien balioa. Orain arte aritu gara haurren hizkuntza sozializazio-prozesuaren barruan eskolaz eta familiaz, baina badago bertze mundu bat bi eragile horietatik kanpo: komunitatea edo jendartea. Azken batean, horrek guztiak sentiarazten dio hiztunari badirela zenbait elementu instrumental hizkuntzari dagozkionak.

Motibazioa, emozioak... elementu subjektiboak ez daude oso lotuak euskaraz gizartean duen egoerarekin. Hizkuntzak izan dezake hiztunaren baitan oso toki berezia, nahiz eta inguruan ez egon. Ikerketa batean irakurri nuen lekukotasun aski polita datorkit gogora: Bilbon Afrikako hizkuntza bateko hiztuna bizi zen, inguruan bere hiztun talde bereko bertze hiztunik ez zuena. Bere hizkuntzaz mintzatu nahi eta solaslagunik ez. Jakin zuen Bartzelonan bazuela mintzakide bat eta zenbait hilabetetan behin harainoko bidaia egiten zuen bertze hiztun batekin bere hizkuntzan aritu ahal izateko. Telefonoz ere egiten ahal zuela pentsatzen dut, baina badakigu zer den aurrez aurreko interakzioa eta hizkuntzak ematen dizun toki komuneko konexio hori. Hizkuntzak bertze maila batean konektatzen gaituela egia da, eta horrek batzuetan ez du zerikusirik hizkuntzak kanpoan duen egoera edo estatusarekin.

Dena dela, gizarteak baditu pizgarriak hizkuntza bat balioesten dutenak, mintzaira hori zein garrantzitsua den erakusten dutenak. Gaztelaniari loturik pizgarri anitz daude.

Zeintzuk, adibidez?

Imajinatzen duzu gizarte honetan gaztelania jakin gabe lan egiten ahal izatea? Hori bakarrik bada oso pizgarri garbia. Gainera, gaztelaniarekin

gertatzen dena da jakintzat ematen dela, hain da ezinbertzekoa, non mundu guztiari badakiela suposatzen baitzaio.

Dena dela, lehen aipaturiko metaforako motxila horretan hiztunaren barneko emozioei loturiko elementuak ikusten ditut gehiago. Guri orain euskaraz aritzeko zein agindu iritsi zaigu? Bion arteko akordio bat da, eroso gaude eta ez dugu hizkuntza aldatzen.

Uste dut etorkizuna modu horretan irudikatu behar dugula: hizkuntza jakite soilarekin agian ez dugu hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena bermatuko. Hizkuntzari hiztunek emanen diote segida, geroa, jarraipena, baldin eta hizkuntzak balio erantsiren bat badu beraientzat, zeren hautuen bidez lotu beharko baitzaizkio hizkuntzari.

Nafarroa izan duzu aztergai zure doktore-tesian. Bertan nolako rola izan du hezkuntza-sistemak euskararen transmisioan?

Funtsezkoa. Ez dugu irudikatzen ahal azken lau hamarkadetan euskaraz Nafarroan izan duen bilakaera euskarazko eskolarik gabe, hori ezinezkoa da. Baina EAEn ere ez, alde horretatik Nafarroa ez da berezi.

Baina, bertze aldetik, modu berean ezin izanen genuke ulertu Nafarroako egungo egoera soziolinguistikoa jakin gabe edo ohartu gabe azken hamarkadetan familiek haurrak sozializatzeko izan duten modua aldatu egin dela.

Zein zentzutan?

Euskarari garrantzia gehiago eman zaio, eta horrek eraman du euskaraz ez dakiten hainbat gurasok beren haurrak euskaraz eskolatzea; hau da, hainbat familia, euskara jakin ala ez, euskararen aldeko oso hautu garbiak egitera. Haurren euskarazko sozializazioaren aitzineko jarrera sozialak aldatu egin dira.

Duela 40-50 urte ez zen bate-re arraroa erdalduntze-prozesuan zeuden mendialdeko herri handietan —Elizondon edo Beran erraterako— haurrei euskaraz ez egitea. Orobat, euskara bi gurasoetako bakarrak zekien kasuetan, etxean erabiltzea

hagitz arraroa zen; normalean euskara ez zen etxean egiten gurasoetako batek bakarrik baldin bazekien. Ez zen arraroa ttiki-ttikitan haurrari euskaraz egitea, baina erdarazko eskolan hasten zenean pentsatzea ‘egin diezaiogun erdaraz’. Horrek zekarren, aunitz aldiz, eskolatu ondoren haurrek euskara galtzea. Hori guztia erabat aldatu da, baina ez egun batetik bestera.

Hizkuntzaren aldeko diskurtso soziala, euskarari emaniko balioa, 1970eko hamarkadan hasi zen aldatzen eta 1980ko hamardakan nabarmenago egin zen. Izan ere, Francoren agintaldiaren azken urteetan euskararen aldeko mugimendua zabaldu zen eta gizarte mailan euskarak beste irudi bat hartu zuen: gizartearen oharrena aldatu egin zen hizkuntzaren aitzinean.

Ikastolak 1960ko hamarraldian hasi ziren sortzen. 1970. urtean Nafarroan 300 haur baino gehiago euskaraz eskolatuta zeuden. Ikastolena errealitate aski nabarmena zen euskara Hezkuntza sistema publikoan sartu orduko. Eskola publikoan 1980ko hamarkadan sartu zen euskara irakasbidetzat eta horrekin batera familietan hasi ziren hizkuntza-ohiturak aldatzen. Garai horretan, 1970ko eta 1980ko hamarkadetan, sortutako anitzek ez zuten euskaraz egin guraso euskaldunekin, baina guraso euskaldun haiek orain aitaxi-amatxi dira, eta bilobekin euskaraz egiten dute.

Hau da, hiztunen hizkuntza-portaerak, eta, batez ere, haurrak hizkuntza aldetik sozializatzeko moldeak aldatzen ahal dira hizkuntzaren gizarte egoera aldatzearekin. Gurean azken hamarkadetan hori gertatu da.

Horregatik diot ezin dela ulertu gure egoera eskolarik gabe, baina hala berean ezin dugula ulertu gure egoera eskolarekin bat familietan eta gizartean aldatu den horretaz ohartu gabe.

Nafarroan jarraituz, orain arte etenak izan dituen transmisio horretan, nola irudikatzen duzu etorkizun hurbila?

Premia handia dugu estrategikoki belaunaldi berrien hizkuntza jabetze-prozesua sendotzeko. Zorionez, ikerketa aldetik aurreratu dugu, eta gero eta garbiago ikusten dugu hiztun bilakatze horretan zein elementuk eragiten duten: etxekoek, familiari lotutakoek, aisialdikoek... baina baita familietan oso urruti dauden elementuek ere; hizkuntzaren estatusak, edo sare sozialek, kasu. Gai estrategikoa da hizkuntza baten belaunaldi berriak mintzairan ongi sozializatzea.

Etorkizun hurbilean nahiko nuke estrategikotasun hori garbiago ikusiko balitz bai familien aldetik, bai hezkuntza-sistemaren aldetik, bai oro har, hiztun komunitatearen aldetik. Nahiko nuke belaunaldi berrien hiztun bilakatze prozesuari duen garrantzia emanen balitzaio, gure haurrak ahalik eta modurik osoenean hizkuntzaz jabe daitezen.

“Haurrak hizkuntza aldetik sozializatzeko moldeak aldatzen ahal dira, hizkuntzaren egoera soziala aldatzearekin.”

“Premia handia dugu estrategikoki belaunaldi berrien hizkuntza jabetze-prozesua sendotzeko”

“El Martinet” Bartzelonako eskola



ESKOLA PROIEKTUEN AURKEZPEN-SAIOAK

3-12 urte bitarteko eskolen
proiektuak aurkezten

Azaroaren 20an eta 21ean
Donostiako Irakasle Eskolan

Informazioa eta izena ematea
www.hikhasi.eus

ESPERIENTZIAK

CUATRO CANTONS

Galdetu, sortu, ikasi

Edukiak eman beharrean, galderak sor ditzaketen gaiak aurkezten dizkiete ikasleei Bartzelonako Cuatro Cantons Institutuko irakasleek. Eta, galderetatik abiatuta, ikasle bakoitzak bere ikerlana egin beharko du. ‘Lan Globalizatua’ esaten dioten horri 10 ordu eskaintzen dizkiote astean: ez da ikasgai jakin bat, baina hamaika jakintza-alor lantzeko aitzakia ematen du.

DBHko eta Batxilergoko ikasleek zer ikasten duten baino garrantzitsuagoa da nola ikasten duten eta zertan ikasten duten; horixe da Cuatro Cantons Institutuaren metodo pedagogikoaren ardatza, Bartzelonako Poblenu auzoko institutuarena. Izan ere, Ramon Grau zuzendariak azaldu duenez, “edukiak garrantzitsuak dira, edukirik gabe ez baitago zer ikerturik. Baina ez gara edukiekin itsutzen. Ikasketa-prozesuaren gakoa da galdera bat sortzea ikaslearengan, eta hainbat arlotako edukiak lantzea horri erantzuna emateko prozesuan”.

Gauzak horrela, Cuatro Cantonsen ez dago gizarte- edo natura-zientzien ikasgaiarik, ezta biologia edo literatura lantzeko ordu zehatzik ere. Baina,

landu, lantzen dira gai horiek, eta, ikasi ere, ikasten dituzte alor horietako jakintzak. Gakoa, esan bezala, gai horiek ikasteko moduan dago: *transdiziplinitate*-an oinarrituta, *Lan Globalizatua* esan duten eremuan lantzen dituzte jakintza horiek.

Instrumentuei eustea

Dena dela, instrumentuei, hots, ikasgai instrumentalei, eutsi egin diete Cuatro Cantonsen, Grauk dioenez. Horrela, Katalana, Gaztelania, Ingelesa eta Matematika ikasgaiak egon badaude, eta gutxi gorabehera 4 ordu eskaintzen dizkiote bakoitzari astean. Lehen Hezkuntzan izandako ebaluazioetan komunikaziorako gaitasuna erakutsi duten ikasleekin, 4 ordu beharrean 3 ordu eskaini dizkiote katalanari, gaztelaniari eta ingelesari, horietako bakoitzari alegia. Eta hortik sobera gelditutako 3 orduak alemana ikasteari eskaintzen dizkiote.

Matematikari dagokionez, eredu propioa dute. Testuinguru jakin batean kokatutako arazo edo egoera bat aurkezten diete ikasleei, zeinetan arazo horri irtenbidea emateko elementu guztiak agertzen diren. Ikasle bakoitzak matematikan duen mailaren arabera landuko du ariketa. “Ez da gauza bera 2x3 eragiketa matematikoa egitea, 2x3 eragiketa erabili behar duzun buruketa bat egitea, edo buruketa bat asmatu behar izatea eta buruketa horretan emaitza 2 x 3 eragiketak ematea. Maila kognitibo desberdinak dira, eta guztiak batera erabil daitezke ikasgela berean, ikaslearen mailaren arabera. Batzuek

zailtasunak izango dituzte, badakigu; baina errutina batzuk sortuta ditugu, hain zuzen, zailtasun horiek lantzeko”.

Izan ere, Grauren ustez, ikasle batzuek beharrezkoa dute sortzea: “Batzuen ustez, ikasketa-prozesuaren arrakasta asko ibiltzea da, bide luzea egitea. Gure ustez, arrakasta sortzea da, ikasleak sormena askatzea”.

Hizkuntzez eta matematikaz gain, beste bi ikasgai ematen dira bere horretan Cuatro Cantonsen: Musika eta Gorputz Hezkuntza. Horietako bakoitzari bi ordu eskaintzen dizkiote astean. Beraz, ikasleek 20ren bat ordu ematen dituzte astean zehar ikasgai jakinak lantzen.

Gai bat, hamaika ikasgai

Beraz, hezkuntzan ezarritako asteko 30 orduetara iritsi arte, DBHko ikasle bakoitzari 10 ordu gelditzen zaizkio ikasgaietatik kanpo. Bada, ordu horiek Lan Globalizatua esaeten dioten eremuari eskaintzen dizkiote. Ordu horietan, ez dute ikasgai jakin bat lantzen, asko baizik, guztiak ikergai bakar baten bidez. Baina, zer egin daiteke gai bakarraren bidez hamaika ikasgai lantzeko?

Ikerketa abiatuko duten galderak sortzea, hori da metodologiaren oinarria. Hainbat adibide baliatu ditu Ramon Grauk metodologia azaltzeko.

Esaterako, Antartika landu dute gai gisa azken hiruhilekoan, eta ikasle bakoitzak Antartikaren inguruko ikerlana egin du. Lehenengo eta behin, testuingurua sortzeko, Pinguino



Ikasleek, taldetan banatuta, etengabe hartzen dute parte.

enperadorearen bidaia izeneko dokumentala ikusi zuten gelan. Dokumentalak erakusten du animalia hori dela negua Antartikan igarotzen duen bakarra, ilunpean eta tenperatura bortitzetan igaro ere. “Horren harira, ikasleak ohartu ziren Antartikan egunak irauten duela... Tira, egunik ez dagoela ohartu ziren. Zergatik? Zer gertatzen da?”. Ikasleengan galderak sortzen hasten dira.

Hori sustatzeko, errutina zehatz batekin egiten dute lan, eta, horren arabera, ikasleek hiru galderari erantzun behar diote: zer ikusten ari naiz?; zer pentsarazten dit?, eta zer galdetzen diot neure buruari? Galdera horien bidez, hausnarketa eragin nahi dute ikaslearengan, bakoitzak bere erantzuna eman behar baitio galdera sortari. Horren ondoren, talde handian partekatzen dituzte erantzunak, eta irakasleak lagundu egiten die hauek bereizten: “zer den ikustea eta zer behatzea, zer pentsatzea eta zer arazoitzea; eta, azkenik, zer den neure buruari galdetzen diodana, alegia,

ez dakidan eta jakin nahi dudana hura. Azken hori izango da bakoitzaren ikerketarako gaia”.

Beraz, ikasle bakoitzak erabakitzen du zer ikertu, bere interesaren arabera. Eta, norbaitek, adibidez, Antartikaren desizoztea edo urtze-aldia lantzen badu, “ohartuko da badagoela jatorria itsasoan duen izotza, eta jatorri kontinentalak duen izotza. Ikusiko du urtze-aldiak arriskuan jarri dituela hainbat harrapari, eta, horrela, ohartuko da sare trofikoak edo elikadura-sarea ere badela Antartikan ere. Hori egitean, ohartuko da ez dagoela zuhaitzik, eta, horren ordez, fitoplanktona dagoela sare trofiko horren oinarrian... Ikerketaren bidez, hainbat gaitan murgilduko da”.

Talde-lanak ere badu lekua. Izan ere, antzeko interesak dituztenek elkarrekin egiten dute lan, blokeetan banatuta: klimarekin loturiko gaiak lantzen ari diren ikasleak, bizitzarekin loturikoak lantzen dituztenak, Antartikara eginiko bidaiekin eta historiarekin loturikoak... Proiektua-

ren amaieran, interes-talde bakoitzak bere ikerketak aurkezten ditu ikasgele guztiaren aurrean. Horren ondoren, ikasgelaren ordezkari izango den taldea aukeratzen dute; ordezkari horiek, beste ikasgeletakoekin batera, aurkezpen orokor bat egiten dute ondoren, DBHko ikasle guztien aurrean. Ikasle bakoitzak, beraz, bere ikerketaren bidez ikasi duenaz gain, beste ikasleek ikertu dutena ere ezagutuko du.

Antartikarekin batera, basoa izan da ikasturte honetan aztertu duten beste gaietako bat. Gai horrek aitzakia ezin hobea eman die DBHko lehen mailako ikasleekin literatura lantzeko, haur-literatura zehazki, literatura mota horretan ohiko agertokia izaten baita basoa. Berriz ere, galderak izan dira lanketa horretarako abiapuntua: zergatik basoa, eta zer funtzio betetzen du haur-literaturan? “Hortik abiatuta, hainbat arlo aztertu genituen: pertsonaiak nola aurkezten diren, nola garatzen den ipuina, nola askatzen den korapiloa...”. Azterketa

egin ostean, berriro ere ikasleengan sormena eta ekimena sustatzen saiatzen dira, Antartikaren gaien edo Matematika ikasgaiaren egin bezala: ikasleei ipuin bat sortzeko eskatzen diete. Sormena ikasketa-prozesuaren abiapuntu da, alegia.

Baina, literatura ez ezik, artea edo matematika ere landu dituzte basoaren bidez. “Errealistek, inpresionistek, postinpresionistek, kubistek... guztiak marraztu dute basoa, eta, hari horretatik, artea eta artearen historia ere ezagutu ahal izan ditugu. Bestalde, arrazoibide matematikoa lantzeko, basoaren argazki bat erakusten diegu, eta zati horretako zuhaitzen hostoek zenbat pisatzen duten kalkulatzeko eskatzen diegu”.

Grauk, adibide horien bidez, azaldu nahi du Cuatro Cantons Institutuan ikuspegia “bestelakoa” dela: “Basoari loturiko ikerketa txiki bat, azken batean, matrioxka bat bezalakoa da: alor akademiko guztiak hartzen ditu bere baitan”. Horrela, paradigma aldatu dute: hezkuntza-sisteman, oro har, “onartutako ezagutza behin eta berriz errepikatzen da”; Cuatro Cantonsen ikasleek ezagutza sortzea proposatzen dute, eta prozesu horretan onartutako hainbat ezagutza barneratuko dituzte horrela.

Elkarrekintza eta teknologia

Beraz, Cuatro Cantons Institutuan ikasleak dira egiten dutenak, ekin-tzaren protagonistak, alegia. Izan ere, “gelara iritsi eta irakaslea hizketan hasten bada, inpresionismoa zer den azaltzen edo hostoek zenbat pisatzen duten esplikatzen..., horrek ez du ezertarako balio”.

Ikasleen ekintzailetasun eta protagonismo hori errazteko, teknologia baliatzen dute. Horrela, ikasgelak interaktiboak dira: ikasle bakoitzak bere tableta dauka, eta gelaren erdian dagoen pantaila handi batekin konektatuta daude horiek, baita irakaslearen tableta ere. Horrenbestez, ikasle batek bere kabuz tabletan egin duen ariketa gainerako ikasle guztiak ikus dezakete pantailan, eta, bakoitzaren tabletaren bidez, zuzenketak egiten dizkiote, azken testua den artean osatuz. “Guk ez daukagu libururik, logikoa denez. Material guztia Moo-

dle plataforma batean dago, hau da, plataforma birtual batean. Ikasturtez ikasturte, gero eta material gehiago daukagu plataforma horretan, ikasleek proiektu bakoitzeko sortzen baitute material berria”.

Tabletaren bidez, argazkiak edo bideoak ere sor ditzakete ikasleek, eta ohikoa da ikasleek prezio edo antzerako aplikazioen bidez aurkezpenak sortzea, ondoren ikasgelako pantaila handian ikusteko. Eta, tableta badutenez, ikasleek ez dute baimenik ikasgelan mugikorra erabiltzeko: “Beste gailu bat eskura izanda, mugikorra whatsapp-ak bidaltzeko bakarrik litzateke, eta, beraz, ez diegu erabiltzen uzten. Kontua ez da ikasgelan irudiak har ditzakeen gailurik erabili nahi ez izatea, tabletak ematen baitie

horretarako aukera; baina mugikorraren zenbait erabilera asaldatu egiten gaituzte”.

Irakaslearen rola: transdiziplinitatea

Ikasleak Lan Globalizatua egiten ari direnean, gai jakin bat hamaika ikuspegiatik ikertzen ari direnean, alegia, irakasle bakarrarekin egiten dute lan. Adibidez, Ramon Grau Biologian doktorea da, baina, Basoa aztertzean, hark azaldu dizkie ikasleei artearekin, literaturarekin edo matematikarekin loturiko jakintzak ere. Alegia, transdiziplinitatearen ikuspegiarekin egiten dute lan, jakintza-alorrez harago joanez.

“Aukera bat litzateke diziplinartekotasuna: basoa aztertzen ari garen bitartean, teknologiko irakasleak



Ramon Grau, Cuatro Cantons-eko zuzendaria.



Ikasleek tabletekin egiten dute lan eta gelaren erdialdeko pantaila handian partekatzen dute egindakoa.

bere alorrarekin loturiko azalpenak ematea; edo literaturan aditu den irakaslea etortzea basoarekin loturiko ipuinez hitz egitera. Aukera bat da, bide horretatik gutxienez hainbat pertsona ados jartzen baitira elkarren artean zerbait sortzeko”.

Dena dela, Cuatro Cantons Institutuan ez dute aukera horren alde egiten: “Gurean dena irakasle bakarrak egiten du, uste baitugu gertuago dagoela ikasten ari denaren logikatik. Pertsonok ez dugu ikasten unibertitatean egindako jakintzen sailkapen baten arabera; errealitateak ikasten dugu, eta, errealitatean, arloak nahasi egiten dira; errealitatea transdiziplinarioa da”.

Oasi bat basamortuan

Cuatro Cantonsen, oasi sentitzen dira basamortuan. Izan ere, eskola publikoen sarean dago, eta Kataluniako Gobernuaren Hezkuntza Saila ez doa Cuatro Cantonsek hartutako

bidetik. Gobernuak “ikasleak A, B eta C getetan banatzea proposatzen du, bakoitzaren maila kognitiboaren arabera”, eta, Cuatro Cantonsen, “guztiz kontrakoa” egiten dute: “Etengabe nahasten ditugu ikasleak, batzuk besteak, ikasgeletan nahiz taldeetan, heterogeneotasuna sustatuz etengabe”. Adibidez, ikasle bakoitzak erreferentziatzko ikasgela eta ikaskideak ditu, baina, Lan Globalizatua egiterakoan, nahasi egiten dira hainbat ikasgelatako ikasleak.

Grauren esanetan, maila kognitibo txikiagoa duten ikasleak “baztertuta ez gelditzea eta pixkanaka aurrera” lortzen dute modu horretan: “Oso ikasle gutxi uzten dute DBH gurean”. Dena dela, A, B eta C banaketa egiten duten institutuz inguratuta daudela aitortzen du Grauk.

Hitzaz azaldutakoa ikusteko eta ondorioak ateratzeko, Grauk bere ikasgelara gonbidatu du hik hasi, ikasleekin batera egotera. Badirudi

egindako lanak eman dituela bere fruituak: ikasle aktibo eta ekintzailak ikus daitezke, taldean sortzeko eta besteen aurrean adierazteko gai direnak. Irakasleak eginiko galdera bakoitzeko hamar bat esku altzatzen dira gelan, erantzuteko gogoz. Guztien artean josi dute hik hasi-erentzako kontakizuna, ahotsak batuz.

“Dena irakasle bakarrak egiten du, uste baitugu gertuago dagoela ikaslearen logikatik. Pertsonok ez dugu ikasten jakintzen sailkapenaren arabera”

Ramon Grau

EKARPENAK 1

KALAKA komunikazio parekidea

Nola txertatu komunikazio parekidea ikastetxearen dinamiketan?

Galdera horri erantzutea dute helburua, besteak beste, Kalaka komunikazio parekiderako elkartearen sortzaileek. Ikastetxeetan parekidetasunaren gaia modu integralean eta zeharkako gai gisa lantzea proposatzen dute. Eta, horretarako, formazioa litzateke gakoetariko bat, baita ikastetxeekin elkarlanean zehazturiko estrategia ere.

Eraldaketa soziala dute helburu; parekidetasuna, berriz, xede hori erdiesteko lanabes nagusia. Iparrorratz horrekin sortu dute Kalaka, komunikazio parekidearen agentzia, Nerea Uriak eta Ilazki Gainzak. Bidea hasi berri dute, baina dagoeneko hainbat esperientzia ari dira gidatzen erakundeen komunikazio-estrategiak parekidetasunaren ikuspegia aintzat hartuta garatzeko.

Bide horretan, interes berezia dute ikastetxeekin lan egiteko, izan ere, Nerearen esanetan, “herri osoa da, azkenean, ikastetxearen bueltan



dagoena. Beraz, bertan lantzen den edozein gaik zabalkunde handia du”. Alegia, hezkuntza-munduarekin lan egiteak, parekidetasuna tantaz tanta jendarte osora zabaltzeko bidea eman dezakeela uste dute.

Estrategia, aholkularitza, formazioa

Hiru ardatzetan oinarritzen da Kalakaren jarduna. Batetik, entitateen komunikazio-estrategia definitzen egiten dute lan. Hori egiterakoan, noski, zehaztutako helburu, erronka eta ekintza guztietan dago parekidetasunaren kontzeptua, eta azken helburua entitate horretan eraldaketa soziala sustatzea izango da, Kalakaren muinarekin bat. Nereak azaldu bezala, “adibidez, komunikazio-ekintza baten mezua edo irudia pentsatzerakoan, argi dugu ez dela nahikoa hizkuntza inklusiboa

erabiltzea, beharrezkoa da jarrera inklusiboa izatea ere”. Ilazkiren ustez, “parekidetasuna ez da hainbeste zerbait kuantitatiboa, ez du esan nahi karteletan emakume eta gizon bana jarri behar ditugunik. Gakoa emakumeak agertzeko moduan dago, kualitatiboa ere bada. Egin daiteke parekide kuantitatiboki, eta muinean sexista izan!”.

Behin estrategia definituta, hortik eratorritako ekintza batzuk Kalakako kideek eurek gauzatzen dituzte, baina helburu nagusia organizazioa bera boteretzea da; alegia, organizazio bakoitza egitea bere estrategiaren eta ekintzen jabe. Horregatik, bezeroak “bidelagun” izatea dute helburu: “horien azalean jarri” eta beraien beharren eta interesen arabera plagintza osatzen dute elkarlanean.

Bigarrenik, aholkularitza-zerbitzua



Nerea Uria eta Ilazki Gainza, Kalaka-ren sortzaileak

ematen diote bidelagun izan duten bezero horri, estrategia gauzatzeko nahiz ekintzetan parekidetasuna txertatzerakoan izan ditzakeen zailtasunen aurrean laguntzeko.

Hirugarrenik, Kalakaren lanaren oinarri inportantea da formazioa. Izan ere, hainbat hitzaldi eta ikastaro ematen dute “bai komunikazioaren gaia lantzeko, bai genero ikuspegiaren hausnarketa sustatzeko”. Edo biak uztartzen dituzte, guraso eta hezitzaileei sare-sozialen pribatutasunaren inguruan eskaintzen dizkieten ikastaroetan bezala; edo *Sare-sozialak genero ikuspegitik* izenekoan bezala. Azken hau nerabeei zuzendua dago, sare sozialak erabiltzerakoan “irizpide kritiko batzuk izan ditzaten. Estereotipoz beteriko irudi bat iristen bazaie, gai izan daitezela ohartzeko eta erabaki dezatela ez zabaltzea”, dio Ilazkik.

Gogoeta: txikiekin hasi, eta etxeraino

Zehazki hezkuntzari dagokionez, “komunikazioaren bidez parekidetasunaren gaia zeharkako egin” nahi dute, eta horretarako modu integralean landu behar dela uste dute. Alegia, ikastetxearen barne-nahiz kanpo-komunikazio ekintza orotan presente egon behar du, baita hezkuntza-komunitateko kideen arteko harremanetan ere, eta, gainera, berariaz landu beharko litzateke gaia

ikasleekin.

Ikastetxeekin izan dituzten kontaktuetan ikusitakoaren arabera, uste dute beharrezkoa dela gaia ikasleekin txiki-txikitatik lantzea, “ez baita nahikoa nerabe direnean hasia parekidetasunaz hitz egiten. Izan ere, nerabezarora iristeko gauza asko entzun eta ikusi dituzte eta hainbat balore jada barneratuta dituzte”, Ilazkiren ustez. Horregatik, arreta jartzen dute haurrei eskaintzen zaizkien edukietan, eta, besteak beste, ipuin parekideen erabilera gomendatzen dute. Horrekin batera, txikiak direnean astean pare bat ordu gaiaren inguruko ariketei eta hausnarketei eskaintzea egokia delakoan daude. Horiek dira, besteak beste, strategiaren lanketan proposatzen dituztenak.

Baina, ekintza horiek arrakasta izateko, bi gako ikusten dituzte. Batetik, ezinbestean modu osoan edo integralki landu behar da parekidetasunaren gaia: ez du askorako balio gaiaren inguruan bi orduz hausnartzeak, ondoren, beste ikasgai batean parekidetasuna aintzat hartu gabe emakumea modu desegokian agertuko bada. Eta, bigarrenik, aurrekoarekin estuki lotuta, beharrezkoa da hezkuntza-komunitatea osatzen duten kide guztiak formatzea, guztiek har dezaten aintzat ikasleekin dituzten hartu-emanetan. “Argi dago irakasleekin ere hitz egin behar dela.

Gure asmoa da estrategia globala izatea. Adibidez, haurrekin botere-harremanak ari bagara lantzen, bada hitz egin dezagun horretaz ikastetxeko aldizkarian, edo antolatu dezagun solasaldia gurasoekin... eta ahalko balitz etxeraino eraman gogoeta”, Nerearen arabera.

Ikastetxeekin elkarlanean definitu nahi dituzte hezkuntza-munduan parekidetasunari dagokionez egon daitezkeen beharrak edo gabeziak. Hori bai, elkarlanean detektaturiko gai horiek lantzeko aiposenak, komunitatetik *kanpoko pertsonak* izan daitezkeelakoan daude: “Ikastetxeetan esan izan digute nahi dutela zenbait gai kanpotik datozenekin landu. Nonbait, arreta gehiago jartzen diotelako kanpotik datorrenari”, aipatu dute.

“Ez da nahikoa nerabe direnean hasia parekidetasunaz hitz egiten, ordurako hainbat balore barneratu dituzte”

Ilazki Gainza

EKARPENAK 2

HEGOALDE IKASTOLA

Inklusioaren erronka

Iruñeko Hegoalde Ikastolan, berriazko hezkuntzaren modalitatean eskolatu diren 5 ikasle daude. 'Gela Alternatibo'-ko ikasleak dira, zonaldeko sare publikoko eta D ereduko ikasle bakarrak, eta eskola arruntak dituen aukerek onura handia eskaintzen diete. Jarduerak gainerako ikasleekin batera egitea eta egunerokotasuna partekatzea dira, besteak beste, garapen pertsonala bultzatzen laguntzen duten oinarrizko ekintza batzuk.

Nola hasi zen gelako integrazio-prozesua? HIK HASIren 2014ko ekaineko zenbakian azaldu genuenez, Hegoalde Ikastolak, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasge-la arruntak izateaz gain, badu unitate berezi bat: Gela Alternatiboa. 2011-2012 ikasturtean sortu zen, hainbat familiak eskaera egin eta gero. Huraxe izan zen gure eskolan premia bereziak zituzten ikasleentzako gela

**Aitziber
Ganuz
Quel**

Hegoalde
Ikastolako
orientatzailea

integratzen hasteko abiapuntua, eta, ingurune normalizatu batean, baldintza jakin batzuk behar zituen esparrua txertatzea lortu zen. Proiektu horrek, guraso eta irakasle taldearen lanaren ondorioz, neurri handiagoa hartu du, eta 5 ikasle izatera iritsi gara 2014-2015 ikasturtean.

Ikasle hauek eskolatzeko modalitatea berriazko heziketa da, premia berezia duten ikasleak baitira; hau da, norberaren ezaugarri pertsonalak direla eta, curriculum arruntari jarraitzea ezinezkoa duten ikasleak dira. Horregatik, norbanakoaren arabera egokitzapena dute, bai eta autonomia eta garapen pertsonala bultzatzeko programa indibiduala ere. Familiak eta irakasleek argi aldarrikatu zuten, ikasle horien baldintza pertsonalak desberdinak izanda ere, testuinguru arruntan egoteko aukera izan behar zutela, integratuta egoteak garapen pertsonalean eraginen zituen onurertan oinarrituta.

Horrela, *Gela Alternatiboa* Hegoalde Ikastolan garrantzi handia hartuz joan da, bai gelako ikasleei eta bai gainerako ikasle, irakasle eta familiei ere ikasketarako aukera polita ahalbidetzen dietelako. Funtzionamendu berezia du gelak, bai eta antolakuntza desberdina ere (espazioari zein denborari dagokienez), eta, urteen joan-etorrian, *Gela Alternatiboa*-ren



ezaugarriak ezagutzera eman dizkiegu eskolako ikasleei, beraien curiositate hutsak horretara eraman baikaitu. Integrazioa, beraz, alderantzizkoa izatera ere iritsi da; Gela Alternatibotik gainerako ikasgeletara eta gainerako ikasgeletatik Gela Alternatibora joatea lortu dugu. Esan dezakegu ikastetxe integratzailea gara.

Zer esan nahi du eskola integratzailea izateak?

Ikasgela arruntetako taldekatzea partziala eta baldintzatua dela esan nahi du; hau da, 5 ikasle horiei, saio gehienetan, beren Gela Alternatiboan egoteko eta bestelako saioetan gainerako ikasleekin aritzeko aukera eskaintzea da. Azken saio horietako asko programatuak dira (tutoretzak, jarduerak, antzerkiak...), baina beste asko egunerokotasunak berak eskaintzen ditu, era normalizatuan: jantokia, patioa, pasabideak, baratztea... Espazio komunak dira horiek, eta elkarbizitza bultzatzeko era ezin hobea bidera daiteke horietan guztietan. Inklusioa bermatzeko esparruak dira, hain zuzen ere.

Orokorrean, premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntza-sistema arruntan parte hartzeko aukera ematen zaie, betiere, norberaren izaera zerk ahalbidetzen duen kontuan hartuta; hortaz, ikasle bakoitzaren garapena kontuan hartuta, helburu zehatzak planteatzen dira. Ikaskuntza funtzionalari lehentasuna ematen zaio, eta ikasle bakoitzaren gaitasunak dira abiapuntu. Banakako jarduerak egitean, norberaren ezaugarriak aztertu, eta programaketa zehatzak egiten dira; taldeko jarduerak egitean, aldiz, berdintasuna, normaltasuna eta errespetua dira garrantzi handiena duten elementuak. Ekintzetan, jolasetan, lanetan..., ikasle guztiek parte hartzen dute, horixe baita helburua: gizarteratzean edo taldekatzean, jardueretako partaide aktiboak izatea.

Horrekin batera, badira integrazioa lantzean lortu nahi diren beste zenbait helburu orokor, esaterako:

- Ikasle bakoitzaren garapen pertsonala bermatzea, eta autonomia maila garatzen laguntzea.

- Jarduera libreetako jolasek eskaintzen dituzten aukerez gozatzea, eta

ume guztieganako ikasketa sustatzea.

- Harreman sozialak eta komunikazio mota askotarikoak ahalbidetzen dituzten uneak bultzatzea. Gainerako ikasleekin erlazionatzea, edota umeak imitatzen ikastea.

- Arauk errespetatzen ikastea. Beste ikasleen portaeren ondorioak ezagutzeta, eta norberaren jokabidearen erantzule izaten erakustea.

- Portaera arduratsuak zeintzuk diren barneratzea, eta aurrera eramaten ikastea.

- Elkarbizitzaren elementu esanguratsuak aztertzea, eta berdintasunean oinarritutako jarduerak sustatzea.

- Eskolako ikasleak, irakasleak eta familiak sentiberatzea nahaste psikikoak dituzten umeen inguruan; norberak dituen gaitasunak eta mugak identifikatzen laguntzea, eta horren inguruko hausnarketarako bidea irekitzea.

Nola antolatzen dituzue integrazio-saioak?

Ikasle bakoitzak erreferentziazko taldea du; gure kasuan, 5 urteko gela eta LHko 1., 2. eta 3. mailak. Talde-



katzeak, beraz, ikasgela horietako lagunekin egiten dira.

Saio horiei etekinik handiena atera ahal izateko, erabateko garrantzia du ikasle bakoitzaren ezaugarri pertsonalak ongi ezagutzeak, materialak eta jarduerak egokitu behar baitira, bakoitzaren izaera eta gaitasunak horren desberdinak direnez. Badira hizkuntza menperatu arren komunikatzeko zailtasuna duten ikasleak, mugikortasun mugatua dutenak, autonomia maila eskasa dutenak... Beraz, aurretiko lana da ikasleak ongi

ezagutzea eta ahalik eta informazio gehien eskuratzea.

Hori kudeatu eta aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa da profesional ugariaren esku-hartzea. Hori dela eta, funtsezkoa da pedagogia terapeutikoko irakaslearen, entzumen eta mintzairako irakaslearen, fisioterapeutaren, zainzailearen eta orientatzailearen lana. Horrekin guztia-ekin batera, garrantzitsua da ikasle bakoitzaren erreferentzia-taldeko tutorearekin zein espezialistekin ere koordinatuta lan egitea integrazio-

saioak antolatzeke garaian, jarduerak prestatu eta materiala egokitu beharra baitago. Hori dela eta, heldu askok parte hartzen dugu ikasle horien integrazio-saioen prestaketan.

Oro har, integrazio-saioen bi mota daudela esan genezake. Alde batetik, astero programatzen diren ekintzak ditugu, orokorrean espezialistekin egin ohi diren jarduerak, hain zuzen ere. Astero, musikako, plastikako eta heziketa fisikoko saioetan taldekatzen dira Gela Alternatiboko ikasleak. Tutoreekin ere egiten dituzte zenbait ariketa edo jolas: 3. mailako ikasleek, esaterako, animalien deskribapenak egin zituzten inguruneko saioan, eta premia berezia duen ikasleak bere deskripzio pertsonala egin zuen piktogramak erabilita; hau da, materiala egokituta, ikaskideekin parte hartzeko aukera izan zuen, bai eta haien lanak ezagutzekoa ere. Jakina, ikasle horren lanaren bidez kontzeptu berriak ikasteko aukera izan zuten gainerako ikasleek ere, hala nola piktograma eta komunikazio-sistema alternatiboen esanahia. Ikasleak harrিতa geratzen dira argazki edo marrazki bidezko hizkuntza ezagutzen dutenean, ahoko mintzaira ez duten pertsonen "hitx egiteko" erak aztertzen dituztenean, edota Pintto txakurraren deskribapena irudi eta abesti bitartez egiteko aukera dagoela ikusten dutenean, kasu honetan halaxe gertatu baitzen. Azpimarratzekoa da horrelako egoeretan ikaskideek garatzen duten sentsibilizazio maila.

Bestalde, integrazioak askotariko jardueren bidez gauzatzen dira: euskararen asterako prestatzen diren ekintzetan, esaterako, erreferentzia-taldeko ikasleekin aritzen dira; eta halaxe aritzen dira bizikidetzaren astean, Olentzeroren ekitaldian, Inauterietan eta Agate Deuna eguneko ekintzetan ere. Eskolaz kanpo antolatzen diren ekintzetan ere, integratioko lagunekin aritzen dira jolasean; besteak beste, ateraldietan eta kanpamenduetan.

Esan beharra dago Nafarroako Gobernuak onartzen dizkigun profesionalen menpe gaudela, integratio-saio horiek guztiak aurrera eraman ahal izateko; beraz, urtetik urtera,

Hezkuntzako Departamentuak eskaintzen dizkigun aukerak aztertu behar izaten ditugu. Zaintzaileen lanak erabateko garrantzia du kasu horietan, autonomia maila baxuko ikasleak direnez, heldu baten laguntza behar baitute etengabe.

Alderantzizko jarduerak ere antolatu ohi ditugu, eta azpimarratzekoa da hori: ikasle arruntak Gela Alternatibora joan ohi dira, eta hainbat jardueratan parte hartzen dute hango ikasleekin batera. Bigarren mailako ikasleek, esaterako, zentzumenak landu ondoren, aukera bikaina izan zuten Gela Alternatiboko materialak erabilia zentzumen guztiak sakon aztertzeko eta disfrutatzeko. Gela Alternatiboko ikasleei izugarri gustatzen zaie harrera-lana egitea eta ikasleak “beraien gelara” gonbidatzea. Ipuinak irakurtzera joaten dira noizean behin beste zikloetako ikasleak zein irakasleak, eta adierazgarria eta esanguratsua da sortzen den harremana.

Hurrengo helmuga, inklusioa?

Pausoz pauso joan beharra dago. Asko dago egiteko oraindik, baina bidean aurrera egitea da garrantzitsuenak. Lehenengo helburua Nafarroako ikasleek gurea bezalako ikastetxe batean matrikulatzeko aukera izatea da (ezin ahanztz dezakegu sare publikoan mota honetako D ereduko eskola bakarra dugula Iruñerrian). Hori lortu ondoren, hurrena ikasleen hezkuntza inklusiboa lortzea izanen da, noski, helburua. Baina, horretarako, gauzek asko aldatu behar dute: askotariko proiektuak gauzatu behar lirateke, eta hezkuntza-sistema sakonetik aldatu behar litzateke.

Guk, oraingoz, integrazioa bermatzen dugu, bai eta inklusioa ere, hainbat unetan. Bizikidetzatza-batzordeak jarduera ugari antolatzen ditu ikasturtean zehar, eta irakasle eta familien parte-hartzea bultzatzen da jarduera horietan. Hortaz, helmugan dugu erabateko inklusioa, eta harantz goaz.

“Gela Alternatiboa Hegoalde Ikastolan garrantzi handia hartuz joan da, bai gelako ikasleei eta bai gainerako ikasle, irakasle eta familiei ere ikasketarako aukera polita ahalbidetzen dietelako”



GALDEIDAZU

ZERGATIK DA DOKUMENTAZIO LANA GARRANTZITSUA?

Dokumentatzeak esan nahi du egindako lan bat estetiko-ki eta kontatuta jasotzea, modu bisualean, ikus-entzuzkoan eta idatzizkoan.

Hiztegiaren arabera, pertsona bat agiririk gabea dela esaten dugu identifikazio pertsonalik ez badu; kargu bat betetzeko meriturik edo dohainik ez badu; ezjakina edo eskolagabea bada, edo sustrairik edo errespetagarritasunik ez badu.

Berezko kultura eta nortasuna ondo hautematen diren eskola bat eraiki behar dugu, batez ere Haur Hezkuntzan. Bide horretan, ezinbesteko tresna da dokumentazioa lan gogor horretarako.

Behaketa, entzutearen pedagogia eta dokumentazioa

Dokumentazio oro behatzeko eta entzuteko plan zehatz baten bidez sortzen eta ibiltzen da. Entzutea erabakigarria da, neska-mutilek egiten dutenari zentzua bila diezaioten eta komunikatu nahi izatearen atsegina eta balioa aurki ditzaten. Entzutea, egiatan, haur-kultura ulertzeko artea da: pentsatzeko modua, egitekoa, galdetzekoa, teorizatzeak edo nahi izatekoa. Entzuteak adi egotea esan nahi du; zentzumen guztien bidez, munduarekiko harremanean haurren hizkuntza guztiak bereizten jakitea.

Entzun gabe, gure laneko ezinbesteko tresnak galtzen ditugu: harri-



ALFREDO HOYUELOS EUROPAR DOKTOREA



dura, miraria, gogoeta eta haurrekin egoteak dakarren poza.

Entzutearen eta gure hezkuntza-espereziatik ikasi nahi dugunaren behaketa planifikatuan oinarritutako pedagogiak harritu egiten du hori entzuten duena. Harridura, ustekabeak eta aurreikusi gabekoa itxaroteko ahalmen gisa. Zerbaiti konfiantzaz eta estimuz so egitean datza. Entzutea aurreiritziak kentzeko barrutik mugitu behar gaituen jarrera bat da. Eraikitzeak hausteak da.

Dokumentazioa hezkuntza-prozesuak sistematikoki eta estetiko-ki jasotzean eta erakustean datza (idatzien, irudien, panelen, bideoen, neska-mutilen hitzen eta produktu grafikoaren bidez). Ez da gertatutakoa adieraztea soilik, baizik eta bizitakoa kontatuko duen produktu publiko bat eraikitzea, zenbait euskarritan. Aldi berean, badakigu ezin dugula dena aztertu eta dokumentatu. Beharrezkoa da aukeratzen jakitea, begirada doitzeko hautatzea, zenbait alderditara bideratzea eta kokatzea, eraginkortasunez komunikatuko duen dokumentazio bat sortzeko.

Malaguzzik dio neska-mutirik ikusiak izateko zain daudela. Antzokirik edo besaulki-patiorik gabe, haurrek ikusezin eta hutsal bihurtzen dira. Halaber, irakasle asko zain daude, beren lana ikusia eta aintzat hartua izan dadin. Dokumentazioa ikasleekin izandako prozesuaren oroitzapen

bizi eta bistako bihurtzen da, eta ez dio horrenbesteko arreta jartzen azken produktuari.

Gaur egun, Haur Hezkuntzako eskola batzuetan (eta familia batzuetan) neska-mutilek zerbait ekoizteko obsesioa dagoela ikusten dut oraindik: marrazkiak, fitxak, idatziak, koadernoak... Eta bada ideia bat ezkutuan: gehien ekoizten duten ikasleek gehiago ikasten dutela edo argiagoak direla pentsatzen da, bai eta gehien ekoizten duten irakasleek gehiago eta hobeto irakasten dutela ere. Baina, modu horretan, arrastorik uzten ez duten prozesuak datoz. Askotan ikusi dut zenbait haurrek trazuak marrazten dituztela airean; eta papera ukitzen dutela, paperaren izaera sensoriala, testura, sentitzea; orriaren perimetroari jarraitzen dio hatz erakusleak; izkinak eta angeluak hautematen dituzte haurrek; edo besteek ahoskatzen dituzten hitzei lagun egiten diete, beren begi adierazkorren bidez eta begirada isilarekin. Ez dute “produkturik” uzten. Urduri sentitzen naiz, haurrei pinturaz arrastoak tratatzeko edo nahitaez hitz egiteko eskatzen dietenean. Beren nortasunaren eskubidea lapurtzen dietela sentitzen dut. Aparteko produktu horiek jasota uzteko modu bakarra, nire ustez, produktu horiek kontu ditzaketan irudien bidez ikusgai bihurtzea da.

Deskribapena eta interpretaziozko narrazioa

Dokumentazioa ez da deskribapen bat, edo gertatzen denaren egiaztapen hutsa: ez du lortu nahi zintzoki erregistra daitekeen kanpoko egia objektibo bat. Dokumentazioa esperientzia hark haurarentzat zer esanahi izan duen interpretatzea da: zer esan nahi duen egiten duen hori egiteak (zergatik eta zertarako?). Interpretazio baten (haurrek egoerari buruz egiten dutena, hain zuzen) interpretazioaren bidez egindako esanahiak jasotzen eta berreskuratzen ditu. Haurrek interpretazioaren bidez beren jakintza eraikitzekeo duten moduari buruz hausnartzeko abagunea da dokumentazioa. Monografiko honetan bertan, Haurtzaro Haur Eskolako adiskideek kontatutako proiektuak aditzera ematen du,

besteak beste, haurrek beren prozesuak interpretatzen dituztela egitura logiko-matematikoetan. Era berean, Mendillorri Haur Eskolako adiskideek nortasunaren eraikuntzarekin zerikusia duten alderdiak interpretatzen dituzte, argazkien bidez.

Dokumentazioak harreman bat ezartzen du pentsamenduaren eta esanahiaren artean, egin daitezkeen interpretazioen kopurua handituz; gainera, berriz interpretatzeko modukoak izan daitezke. Hori dela eta, garrantzitsua da prozesuen analisisa eta dokumentazioa taldean egitea, subjektibismoan ez erortzeko eta, horrela, subjektuen artean sormenezko prozesuak lortzeko. Sarritan, argazkiak edo bideoak aztertzen ari ginela, haietan ikusten genuenari buruzko azalpen posibleez nire kideekin eztabaidatzeko atsegina izan dut. Denok kontatzen dugu gure historia egiazkotasunez, baina gure burua egiaren jabetzat hartu gabe. Gutako bakoitzak, gure kulturaren bidez, gauzak hautemateko gure moduaren bidez, gure zirraren eta itxaropenen bidez, gauza bakoitza gure modura interpretatzen du. Garrantzitsuena, ordea, zera da: besteekin egindako lanak gure helburuen eta zentzuen aukerak hedatzen ditu, eta, horrela, ez dizkie etiketak goizegi jartzen haurrei. Era berean, sentitzen dut askotan ikasleekin bizitako benetako prozesuen dokumentuak teorikoak baino ez ziren eztabaidak eta hausnarketak hastea eragotzi duela. Izena eta abizenak dituzten neska-mutilen irudiak, egunero lanean gurekin ditugunak, lagungarri dira alda daitekeen errealitate bati buruzko gure interpretazioen arreta jartzeko.

Ez dugu dokumentatzen fitxategi bat egiteko, edo irudiak edo lanak metatzeko. Guri gehien interesatzen zaiguna, haurren kultura azaltzea baino areago, kultura hori hobeto ulertzea da. “Azaltzea ez da nahikoa ulertzeko”, Dilthey-k adierazi zuenez. “Azaltzea jakintzaren bitarteko objektibo guztiak erabiltzea da, baina ez dira nahikoa izaki subjektiboa ulertzeko. Giza ulermena gizakiak subjektu gisa sentitzen eta ulertzen ditugunean lortzen dugu; giza sentimenduak eta poztasunak irekitzen

Dokumentazioak harreman bat ezartzen du pentsamenduaren eta esanahiaren artean, egin daitezkeen interpretazioen kopurua handituz; gainera, berriz interpretatzeko modukoak izan daitezke. Hori dela eta, garrantzitsua da prozesuen analisisa eta dokumentazioa taldean egitea, subjektibismoan ez erortzeko eta, horrela, subjektuen artean sormenezko prozesuak lortzeko.

Ez dugu dokumentatzen fitxategi bat egiteko, edo irudiak edo lanak metatzeko. Guri gehien interesatzen zaiguna, haurren kultura azaltzea baino areago, kultura hori hobeto ulertzea da.

“Ikusten ez dena ez da existitzen”. Esaldi probokatzaile horre bidez, Loris Malaguzzik irakasle batzuk estimulatu nahi zituen, dokumentazioari alergiarik ez izateko, alergia horrek gure lanbidea kutsatzen baitu batzuetan [...] Dokumentazioa hezkuntzari buruz pentsatzeko modu etikoa, estetikoa eta politikoa da; eta, batez ere, neska-mutilen aparteko ahalmenei buruz hausnartzeko modua, gure kulturen konturatu gabe pasa ez daitezten.

dizkigu (...). Ulermenaren bidez, gorrotoaren eta bazterketaren aurka egin daiteke borroka”.

Interpretazioa garrantzitsua da, baina, monografiko honen artikuluan bideo-dokumentazioari buruz idatzi dugunaren ildotik, narrazio estetiko bat egin behar da interpretazio horren bukaeran, gertatutakoa publikoki aditzera emango duena; eta dokumentu-euskarriren batean egingo da: paneletan, power point bidez, liburuxketan, DVDan, eta abarretan. Hala, edukiaren eta formaren harmonia lotzen da. Argazki-segida batek, esate baterako, zerbait interesgarria adierazi behar du esperientzia batek argazkietan ageri diren haurrentzat izan duen esanahiari buruz; prozesu horren berri eman behar du. Argazki bakoitzak haurtzaroaren irudi bat, eskolaren irudi bat eta gure irudi bat darama. Irudi axolagabe batek traizio egin diezaieke gure asmorik onenei.

Zerbait ahalmen tekniko eskatzen ditu euskarri bakoitzak, eta hainbat modutara komunikatzen du. Esate baterako: DVD bat produktu autonomo bat da, bere kabuz azaldu behar dena; eta power point bat gure azalpenen bidez, gure taupaden eta erritmoen bidez mugitzen den dokumentu bat da.

Besteentzat ulergarri

Kontatzean, zentzu-korapilo bat sortzen dugu, haurrentzat nahiz guretzat. Gertatutakoari buruzko egiazko datuak eman behar ditugu dokumentazioan, zorroztasunez; baina, aldi berean, bizitakoaren narrazio ulergarri bat sortu behar du beste batentzat (ikusle aktiboa). Halaber, badakigu, besteentzat zerbait ulergarria egiten saiatzean, guretzat ere bistakoa balitz bezala agertzen dela sarritan.

Narrazioaren bidez, eskolak bere ohiko historia esanguratsua sortzen du, hizkuntza teknikitik eta ofizialek urrun dagoena. Zure biografia eta istorioak, kontakizunak eta kontatzeko modukoak diren gorabeherak sortzen dituzten protagonistenak azaltzen ditu.

Dokumentazioaren kontzeptu horrekin lan egiteak esan nahi du kontuan hartzen dela hasieratik modu hori hezkuntza-prozesuaren zati dela. Gauza ez da beti zerbait egitea, eta, horren ondoren, kontatu ahal izateko berreskuratzeko. Hori baino zailagoa da. Dokumentazioa haurrekin egindako jardueren katearen kate-maila bat dela pentsatzea lagungarri da beste modu batera pentsatzeko eta kontatu nahi duguna hobeto planifikatzeko. Esate baterako, dokumentazio-panel bat planifikatzen dugunean, hori hasieratik badugu buruan, jakin ahal izango dugu —aurreikusitako maketaren arabera— argazkiak hobeto geratzen diren horizontalean edo bertikalean, gero ondo egiteko. Horrek guztiak denbora eta energia aurrezteko dakar. Hala ere, onartu behar dugu ezin dugula dena aurreikusi; zorionez, ezin ditugula aurreikusi haurren adierazpen eta prozesuak. Oreka ezegonkor horretan sortzen da dokumentu-narrazioa.

“Ikusten ez dena ez da existitzen”. Esaldi probokatzaile horren bidez, Loris Malaguzzik irakasle batzuk estimulatu nahi zituen, dokumentazioari alergiarik ez izateko, alergia horrek gure lanbidea kutsatzen baitu batzuetan. Haren ustez, eskolak ez du dokumentatzen; egiatan, denbora galtzen du. Hala, Reggio Emilia zerbaitengatik deigarria bada, bere dokumentu-ondasunaren kalitateagatik da. Eta ez da obsesio formal hu-

tsa. Dokumentazioa hezkuntzari buruz pentsatzeko modu etikoa, estetikoa eta politikoa da; eta, batez ere, neska-mutilen aparteko ahalmenei buruz hausnartzeko modua, gure kulturen konturatu gabe pasa ez daitezten.

Nolabait esatearren, gertuko garapen-eremu baten modukoa da, non gure irudia jartzen den jendarean agertzeko. Dokumentazioak gure lanarekiko distantzia bat ezartzea dakar berarekin, beste ikuspuntu bat hartzea. Une ezin hobea da gure hezkuntza-proiektuaren hausnarketak eta laburpena eztabaidatzeko eta aurrez aurre jartzeko. Ikaskuntza-prozesuak berriz interpretatzeko aukera bat izatea bezala da.

Norberaren memoria

Dokumentazioak aukera ematen dio haurrari bere burua ebaluatzeko; bere burua ezagutzeko eta aztertzeko modu bat da, bere jokamoldeari zentzua bilatzeko modu bat, hausnarketa egiteko aukera bat, norberaren memoria izateko eta interpretazio bakarrean giltzaperatua ez izateko eskubidea.

Hitzak ikusteko aukera ematen die familiei, haurren prozesuek zer nolako ibilbidea duten ikusteko aukera (produktuak bakarrik ez balioesteko), seme-alabak hobeto ezagutzeko. Eskola-esparruan sortzen diren gertaeretan parte hartzen dutela sentitzeko aukera bat da; gertaera horiei buruz iritzia eman eta eztabaidatu behar dute.

Zerbaiten dokumentazioan, ideal teorikoen eta hezkuntza-praktikaren arteko sormenezko loturak eta lotura koherenteak ezartzen dira: gure printzipioen adierazpenaren eta gure jokatze moduaren artean; gure nahien eta besteen nahien artean; eta gure ulermenaren eta besteen ulermenaren artean. Dokumentazioaren bidez, hitzen bidez baino gehiago arrazoiz lan egin nahi duen eskola bat azaltzen da, pentsatzen duen eskola bat, hausnartzen duena, bidean ikasten duena: eztabaida publikoan jartzen dakien hezkuntza-erakunde bat, elkarrekiko konfiantzazko prozesuak eraikiz demokraziaz entzuteko eta elkarriketatzeko gai dena.

ARGITALPENAK



ANIMALIEN BIZITZA

Delphine Badreddine



HARTZ TXIKIREN LAGUNA

Else Holmelund / Ilustratzailea: Maurice Sendak / Itzultzailea: Manu Lopez



ELEFANTE BAT HEGAN

Patxi Zubizarreta

ELKAR

Liburu honen bidez, hainbat animalia-
ren eguneroko bizitza ezagutzeko auke-
ra izango dute haurrek: nola elikatzen
diren animaliak, nola mugitzen diren,
nola ugaltzen diren, edota elkarrekin
nola bizi diren, adibidez. 3 urtetik go-
rako haurrei zuzendua dago. *Animalien
bizitza* bildumako ale berria da.

PAMIELA

Hartz txiki Miliaren lagun egin da, eta
ibilaldiak, solasaldiak eta festak parte-
katuko dituzte elkarrekin, harik eta uda
amaieran banatu behar duten une tris-
tea heltzen den arte. Adiskidetasunaz,
partekatutako gustuez, konplizitateaz
eta zailtasunei elkarrekin aurre egiteaz
mintzo zaigu liburu hau.

XAGUXAR

Uholde Unibertsala gertatzean, 40 egu-
netan izan zen euria, urak lur oso-oso
estali zuen eta Noek itsasontzi miresga-
rri bat eraiki zuen. Hori jende guztiak
daki; baina elefante bakarra salbatu
zela, eta arkan Jafet zuela adiskidea,
Noeren semea, hori oso jende gutxiak
daki, eta liburu honek kontatzen du.



BERRIKETA

Pepe Maestro / Ilustratzailea: Leire Sala-
berria / Itzultzailea: Mari Eli Ituarte



MADDI ETA EUSKAL PIRATAK

Fernando Morillo / Ilustratzailea: Mikel
Mendibil



ITZALAK BIZI DIREN LURRALDEA

Alberto Ladrón

IBAIZABAL

Berriketa hiri bat da, eta bertako biz-
tanleak beti daude hitz eta pitz, berrike-
tan. Nahasmena eta zarata dira nagusi
hirian, baina inori ez dio axola horrek.
Bartolori izan ezik, honek ez baitu
bere bizitza osoan zehar hitz bakarra
ere esan. Baina beste gaitasun bat du
Bartolok: badaki besteei entzuten.

GAUMIN

Altxor bilatzaile batek Laffite kortsar-
rioren altxorra aurkitu nahi du, baina
euskal pirata zahar batzuek ez diote
utzi nahi. Maddiren, Harriet neba
txikiaren eta aitonaren laguntzarekin,
aurre egingo diote bilatzaileari Pellot,
Suhigaraitxipi, Laffite, Michel Le Bas-
que eta Destebe txo euskal piratek.

ELKAR

Arkania urrunean, matxinada-hotsak
dabilta, baina istorio izugarriak ere,
aspaldi debekatutako magiaren ber-
pizteaz hitz egiten dutenak. Naturaz
gandiko gertakariak biderkatzen diren
bitartean, gazte beldurti bat, agure ja-
kintsu bat eta matxino ausart bat bidaia
harrigarri batean abiatuko dira.

PROPOSAMENA

INGURU ABENTURA

Abenturaz beteriko hezkuntza-proiektua

Natura ezagutzera bideratutako era guztietako jarduerak antolatzen ditu Inguru Abenturak. Horrez gain, hezkuntzara zuzendutako ekintzak ere prestatzen ditu, bai eskola-orduetarako eta bai eskolaz kanpoko jardueretarako. Ikastetxearen hezkuntza-proiektua osatzen laguntzea dute xede. Hala, ingurumenean eta gorputz-heziketan oinarritutako unitate didaktikoak lantzen dituzte, jardueraz jarduera, ikasleek gelan ikasitako kontzeptuak modu praktikoa batean errazago barnera ditzaten.

Hezkuntza da Inguru Abenturaren oinarritzko zutabeetako bat. Ikasleen artean ingurumenarekiko errespetua eta begirunea sustatzea dute zeregin nagusi, eta, horretarako, geologia, karsta, uraren zikloak, eskualdeko ingurunea eta haren historian oina-



rritutako jarduerak lantzen dituzte. Inguru Abenturako kideek diotenez, “talde-lanean eta hainbat jolasen bidez norberak bere burua eta natura hobeto ezagutzeko aukera paregabea duzue hau”.

Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, mendiko segurtasun eta autobabeserako kanpaina batean murgildurik dago Inguru Abentura, eta oinarri horren gainean egiten dituzte unitate didaktikoak, zenbait xede zehatz hartuta: aurreikustea beharrezkoa dela erakustea; babeserako ohitura sistematiko eta zentzuzkoak erabil-

tzen ikastea; istripuak nola aurreikus daitezkeen eta nola esku hartu behar den jakiteko prestakuntza ematea; istripuak hainbat lekutan (etxean, mendian, ur-ingurunean, kalean, lantokian, osasun-zentroan...) eta egoeratan (uholdeak, suteak, istripuak...) gerta daitezkeela ikusaraztea; eta telefono bakarra ezagutzera ematea larrialdietarako — 112, hain justu —, eta zuzen erabiltzen erakustea.

Horretarako guztirako, eta beste edozeren aurretik haurrek gozatzeko eta ondo pasatzeko aukera izan deza-

ten, eskaintza zabala egiten du:

Egun bateko irteerak

Ikastetxe bakoitzaren eskarira egokitutako plangintzak eta neurri-eginiko aurrekontuak eskaintzen ditu Inguru Abenturak. Gela batentzat edo gehiagorentzat abenturaz beteriko irteera bat antolatu nahi izanez gero, jarduera sorta zabala daukate: tirolina, eskalada, rappela, kayakak, mendi-bizikleta, ginkana, arku-tiroa, herri-kirolak..., eta baita arroila-jaitsiera, espeleologia edota zubi-saltoa ere, ausartenentzat.

2 ordutik 8 ordura iraun dezakete ekintzok, eta Euskal Herriko hainbat txokotan antolatzen dituzte, urte osoan zehar. Parte hartu ahal izateko, gutxienez 6 lagun behar dira, eta gutxieneko adina 8 urtekoa da.

Egonaldiak

Inguru Abenturak egonaldiak ere antolatzen ditu Urbasako kanpinean, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat, ikasturte osoan zehar. Han eskaintzen dituzten jarduerak hiru multzo nagusitan banatzen dira:

*Oinarrizko jarduerak: orienta-

zioa, mendi-ibilaldiak, herri-kirolak, oreka-lantegia, joko dinamikoak eta Alluitz Natura.


*Abentura-jarduerak: espeleologia, rappela, mendi-bizikleta, eskalada, arku-tiroa eta Urbasa Abentura.

*Jarduera osagarriak: arroila-jaitsiera, zubi-saltoa eta elur-erraketak.

Udan, berriz, Euskal Herriko hainbat udalekin elkarlanean, udalekuak egiten dituzte Urbasako kanpinean. Horrez gain, udaleku irekiak antolatzen dituzte zenbait herritan, eta abentura-jarduerak eskualde bakoitzaren behar eta ezaugarrietara egokitzen dituzte.

Ospakizun eta ekitaldiak

Ospakizunen baten aitzakian ikastetxean bertan edo herrian abentura-jardueraren bat antolatu nahi izanez gero, Inguru Abenturak ekintza sorta zabala eskaintzen du, hala nola ohe elastikoak, kutxa-dorrea, oreka-lantegia, rokodromoa, tirolina, jauzi pendularra, artisautza-lantegiak, arku-tiroa edota ginkana. Kasu horretan ere, ikastetxe bakoitzaren beharretara egokitzen ditu Inguru Abenturak bai plangintza eta bai aurrekontua.



San Juan, 18
01208 ALBENIZ-ASPARRENA

INFORMAZIOA:

www.inguruabentura.com

ERRESERBAK:

info@inguruabentura.com

Tel: 635 748 948



ATZEKO ATETIK



ESKOLA ETA ETXEA

XABIER EUZKITZE KOMUNIKATZAILEA

Ume-umetatik ikasketak euskaraz burutzeko zortea izan zuen lehen belaunaldiko kide naiz. Hala moduzko geletan lehenik, Loiolako basilikaren hegalelako batean ondoren, euskaraz hezi gintuzten. Egungo ikasgelekin eta irakasbidearekin alde handia nabaritzen dut begiak itxi eta gure ikasle garaiak oroitzen ditudalarik. Kaskarrekoen bat edo beste hartutakoak gara, eta ke asko irentsitakoak. Orain ulertezina dirudi, baina bai, zenbait irakaslek geletan erretzen zuten. Halere, irakaskuntza aurreratua eta modernoa eskaini zigutela iruditzen zait –ikastola zen orduan neskek eta mutilek elkarrekin ikasten zuten ikastetxe bakarra, esate baterako– eta inolako sektarismorik gabea.

Euskaraz ikasteko aukera ematen zuen eskola bakarra ere huraxe zen. Orain asko dira, eta gure seme-alaben etorrerak hautu bat egitera behartu gintuen. Ni ikastolakumea, emaztea ikastolakume izan ezaren damutan,

oso kontuan hartzeko aukera zen, baina pisu handiagoa izan zuen Euskal Eskola Publikoaren betiko ametsak. Egiari zor, ez kezkarik gabe. Izan ere, pedagogiaz harago, zalantza bat sortzen zitzaigun nagusiki: zein herri eredu hitz egingo diete gure seme-alabei? Bestalde, argi geneukan eskola publikoan ematen den jatorri, kultura, arraza, erlijio eta pentsamolde nahasketa oso aberasgarri gertatuko zela, baina zehar kalteren baten kezkatxoa bagenuen.

Urteak aurrera doaz, eta ibiliak sarretu dizkigu zalantza eta arrangurak. Zarautzek nagusiki euskaldun izaten jarraitzen du, herriko kultura edo kirol mailako ereduak euskaldunak dira denak, eta hori funtsezkoa da ikasleen hizkuntza hautuan. Kanpotik etorritako zein bertako izanik ere euskaldun ez ziren sendietako seme-alabak euskara hutsean aritzen direa gureekin. Jenniferrekin –guardia zibil baten alaba benetakoaren izen asmatua– zein hizkuntzatan aritzen den galdetu

nionean, harrituta erantzun zidan gure zaharrenak: “Aitta!!! Euskaraz!!!”

Gainerako oinarri pedagogikoez ziur egonik, erantzun hori aski berme bada zalantzak uxatzeko. Izan ere, herri eredu –edo erlijioari dagokion, beste asko bezala– etxean bertan bidera edo finka daiteke ondoen. Daitete... edo behar da. Pepe Mujikak, Uruguaiako presidente ohiak, irakaskuntzari buruzko gogoeta mamitsuak egin izan ditu. Hau, esate baterako. “Etxean ikasi behar da agurtzen, eskerrak ematen, garbia, zuzena eta onesta izaten, garaiz iristen, ongi hitz egiten, gordinkeriarik ez esaten, kide eta ez hain kide direnak errespetatzen, solidarioa izaten, ahoa itxita jaten, ez lapurtzen, gezurrik ez esaten, norbere eta besteen jabegoak zaintzen, txukuna izaten. Eta eskolan ikasi behar da: matematika, hizkuntza, zientziak, gizarte, ingelesa, geometria... eta gurasoek seme-alabei txertaturiko balioak indartzen. Oso zaila da letoiak urreak bezala dir-dir egin dezan lortzea”.

zientziaazoka

elhuyar da

2015/2016

Gazteek garatutako proiektuen azoka hastera doa!

2015-16 ilkasturtean zehar, taldeka, gazteek galdetu, ikertu, diseinatu, eraiki, eta bizipenak izango dituzte.

Bi modalitate:

- Ikerketa-proiektuak
- Proiektu teknologikoak

bizi
ikerketa!

Ikertzaile gazteen Euskal Herriko zientzia-azoka

EGUTEGIA

1. Inspirazio-fasea, eta inspiraziorako BTEK museoa bisitatu: urriaren 1etik 30era
2. Erronka definitu: urriaren 30erako
3. Gazteen eta ikertzaileen arteko bilerak: 2015eko abendutik 2016ko otsailera

4. Plangintza eta metodologia azaldu: urtarrilaren 30erako
5. Txostena webgunera igo eta lanaren azalpen laburra bidali: martxoaren 31rako
6. Zientzia Azoka: apirilaren 23an

Norentzat?

12 eta 18 urtera bitarteko ikasle gazteei zuzendutako ekimena.

Nola hartu parte?

Izena emateko eta informazio gehiagorako, sartu <http://zientzia-azoka.elhuyar.eus> webgunean, eta segi jarraibideei.

Eta guztia ikertzaile profesionalen aholkuekin!

Antolatzailea

elhuyar
Zientzia

Babesleak

Bilbao

BFA DFB
Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



Kolaboratzaileak

UPNA
Universidad
del País Vasco
Euskal Herriko
Unibertsitatea

tecnalia
Corporación Tecnológica

upna
Universidad
del País Vasco
Euzko Legebiltzaria

IK4
Research Alliance

Deusto
Facultad de Ingeniería
Ingeniaritza Fakultatea

BTEK
BIZI TEKNOLOGIA

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Casco Viejo
Zazpikaleak
Bizkaia Berria

GOI ESKOLA
POLITEKNIKOA
ESCUELA
POLITÉCNICA
SUPERIOR



www. **amazulo**  .com

Haurrei beraien berezko ahalmenetaz konturatzen, berezko erdiespenak erabiltzen eta beraien lorpenetatik ikasten laguntzen die mugimendu autonomo askeak. Horretarako, ekipamendu egokiak behar-beharrezkoak dira ziurtasuna eskaintzeko eta motrizitatea garatzeko.

eskola ekipamendua



telf. 600492923/607297488 ■ info@amazulo.com